

Kultura

Durango Musika Eskolako irakasle batek eta hiru ikaslek Free Ends jazz laukotea sortu dute > 11



Otxandioko
eta
Amorebieta-
Etxanoko
jaiak
2013

Goiuriko betelekuaren auzia epaileek “argitzea” gura du Iurretako Bilduk > 3

Baimenetan “akats larriak” gertatu direla dio Bilduk. Alkateak dio udalak bere eskumenen barruan jardun duela

Udalak baimen sektorial guztiak barik eman zuela Goiuriko ibarbideak lurrez betetzeko jarduera eta obra lizentzia azaldu zuen atzo Bilduk prentsurrekoan. Bilboko 2. eta 5. epaitegietan, Goiuriko kofradiak eta auzokide batek bul-

tzatutako prozedura administratiboak epaituko dituzte laster. Prentsa oharrean Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez, “udalak bere eskumenen barruan eman ditu baimenak. Errepide baimenak beste prozedura bat dute”.

Gurutze Gorria, inoiz baino beharrezkoago

Durangaldeko Gurutze Gorriak Zornotzan dauka bere egoitza. Ate Irekien jardunaldia egingo dute bihar > 3



KOART 905

Sukaldeak - Bainugelak - Horma-armairuak

Fabrikatzaileak gara eta espazio bakoitzaren neurrirako irtenbideak topatzen ditugu

Eitua Ind. 9 - 6 behea - BERRIZ - Tel. / Faxa: 94 682 68 79

Durangaldea > 3

Abadiñok ez duela Erraldeko kreditua ordainduko dio Navarrok

Durango > 4

Txosnagunea aurten Pinondon jartzea erabaki du udalak

Berriz > 6

Herriko basoen zezpalagaz biomasa egitea aztertzen dabilta

Elorrio > 7

Joseba Gorostizak botako du Ferixa Nausikoetako txupinazoa

Herririk herri

> IURRETA

Goiuriko betelekuaren auzia epaileek "argitzea" gura dute

Bilduk dio baimen sektorial guztiak eduki barik eman zuela lizentzia udalak



Bilduk prentsa agerraldia egin zuen atzo, Ibarretxe kultur etxean.

> AITZIBER BASAURI

Bilduren berbatan, baimen sektorial guztiak eduki barik eman zuen udalak 2010ean Lukupeko Troka eta Luku-Txiki ibarbideak lurrez betetzeko jardura eta obra lizentzia. Diotenez, eskatutako bost baimenetatik bi baino ez ditu onartu Foru Aldundiko Garraio Sailak: 2005ean, Goiuriko bidean behin-behineko obra sarbidea egiteko eta, 2011n, lurren lerradura eusteko proiekturako, "beste jardueratara zabalgarria ez dena". 2005eko foru araua ere aipatu dute: "Horrelako kamioi trafikoagaz, Goiuriko

bideak erabilgarri izateari utziko diola eta bide segurtasuna desagertuko dela dio, eta bidearen ezaugarriak ez dira aldatu".

Arau horrek udaletxean sarriera izan duela dio Bilduk, eta "ez ikusiarena" egin dutela, kalte ekologiko, ekonomiko eta segurtasun arazoak sortuta: "Ahal dela, kalteok konpondu eta eraginak murriztu behar dira. Gutxienez, 200.000 m³ isuri da, batere kontrolik barik. 2007tik 2011ra ere isuri da baimenik barik, eta etorkizunean etorri daitekeenaz beldur gara". Obra eta baimen lizentzia ematean "akats larriak"

egon direla dio Bilduk eta "zuzuzkoena" gaia prozedimentu judizialen esku uztea dela, "guztia argitzeko". Bilboko 2. eta 5. epaitegietan Goiuriko kofradiak eta auzokide batek bultzatutako prozedura administratiboak epaituko dira laster.

Asturiasko Auzitegi Gorenak Ibarbideak lurrez betetzeko Jaurlaritzaren baimena balio gabetu ondoren (URA agentzian irregulartasunak onartu zituen) hasi zuen udalak lizentziaren deusezte prozedura. Bilboko epaitegietako auzibideek ere amaitzeko tramitea hasi dute.

> ATXONDO

Mus txapelketa egingo dute igerilekuan

Hilaren 20ra arte dago izena emateko tartea

> J.D.

Atxondoko igerilekuko tabernaren kudeatzaileek mus txapelketa antolatu dute. Gura duenak igerilekuan bertan eman dezake izena, uztailearen 20ra arte: 10 euro da bikoteko. Txapelketa bera uztailearen 27an egingo dute.

Iaz mus txapelketa antolatzen saiatu ziren, baina eguraldi txarra zela-eta, bikote gu-

txi apuntatu ziren, eta bertan behera utzi behar izan zuten.

Udarako beste hainbat ekimen prestatzen dabilta. Datoren asterako, esaterako, bertso saio bat antolatu gura dute eta aurrerago, ipuin kontalari saio bat. Orain arteko ekimenek harrera ona izan dute; pasa den eguaztenean, rock abesti ezagunen bertso jaialdia egin zuten.

> GARAI

Gazteen arteko desafioa, jaietan

Proban egingo dute Garai eta Iurretako gazteek

> M.O.

Trumoitte kultur elkarteak prestatu du aurtengo jaietarako egitaraua. Santiago, Santa Ana eta San Inazioaren bueltan ospatzen dituzte jaiak, eta uztailearen 24an hasiko dira. Aurtengo nobedade nagusia Iurretako eta Garaiko gazteen arteko desafioa izango da: harriagaz proban egingo dute. Iurretako

jaietan egin zuten lehenengoz, eta orain errebantxa jokatuko dute, hilaren 30ean, 18:30ean.

Erromeria plazan

Jaietan, ia egunero eskainiko dute erromeria hainbat taldek: Luhartzek, Txomin Bedarrak, Ansorregik... Bestalde, hilaren 27an, bazkari herrikoia egingo dute.

Bere eskumenaren araberako baimenak eman dituela dio EAJK

Ibarbideen auzian, obra eta jardura lizentzia eduki eta errepideena ez izatea posible dela diote

> JONE GUENETXEA

Iurretako Bilduk prentsaurrekoan emandako adierazpenen ildotik, prentsa oharra idatzi du Iñaki Totorikaguena alkateak. Goiuriko ibarbidearen auzian azaldu duenez, "jardura eta obra lizentzia behar ditu, baita errepideen foru baimena ere". Azken hau baina, beste prozedura baten bidez ematen dela argitu gura izan du idatziaren bidez. Totorikaguena azaldu duenez, "administrazio bakoitzak bere eskumenen barruan jardun behar du kolaborazio eta kooperazio printzipioei jarraituta". Udalak horrela egin duela dio, "Aldundiari lizentziaren berri emanez, horren arabera jardun

dezan". Udalak bere eskumenen barruan eta baimen guztiaren jardun duela argitu du alkateak, Aldundiaren baimenak aurretik juzgatu gabe. Beraz, Totorikak dioenez, obra eta jardura lizentziak eduki daitezke, eta Errepide Zuzendaritzako baimenik ez izan, eta alderantziz.

Errepide zuzendaritzaren baimena beste prozedura baten bidez ematen dela dio Totorikaguena

> OTXANDIO

Abentura parkea irekiko dute azkenean, baina ez abuztuaren 1ean

Herritarren Kontseilua deitzeko ez da gutxieneko eskakizunik jaso; asteleheneko udalbatzarrean onartuko dute proiektuaren esleipena

> J.D.

Azkenean, Abentura Parkea irekiko dute Olazar inguruan. Herritarren Kontseilua deitzeko ez da gutxiengo eskakizunik jaso (hiru eskaera jaso dira, eta

20 behar ziren) udalak eguaztentera arte irekitako epean, eta ondorioz, prozeduragaz aurrera jarraituko dute. Gaur, kontratazio mahaiak behin-behineko izendapena egingo

du, eta asteleheneko udalbatzarrean (20:00etan) behin betikoa eman beharko dio. Ondoren, beste gestio batzuk faltako dira: Aldundiak lurraz esleitzea, esate baterako.

Proiektuaren sustatzaileek diote irekiera epea atzeratu egingo dela. Abuztuaren 1erako aurrikusita zegoen: "Abuztu irekiko dugu edo hori da asmoa, baina oraindik ez dakigu data zehatzik", adierazi du Joseba Gartzia proiektuko sustatzaileetako batek.

Parkeko materiala Frantziako enpresa batetik dakarte. Abentura parkeak herrian zeresana eman eta udalak prozesu parte-hartzaileari bidea eman zionean, enkargua behin-behinean geratu zuten. Orain, berriro egin dute eskaria.



Abentura parkea Olazar inguruan eraikiko dute.

> DURANGALDEA

Gurutze Gorria, inoiz baino beharrezkoago

Durangaldeko Gurutze Gorriko kideak arlo sozialeko laguntzan ere murgildu dira azken urtean

> MARKEL ONAINDIA

“Krisia aurrera doala ikusten dugu. Beraz, ahalik eta gehien lagundu behar dugu”. Durangaldeko Gurutze Gorriko heziketa arduradunaren berbak dira, Esti Camararenak. Egoera ekonomiko eta sozial honetan, Gurutze Gorria inoiz baino beharrezkoago dela uste du Camarak. Euren lana ere beharizan horren arabera zabaldu dute; lehen, larrialdietan bakarrik esku hartzen zuten, eta azken urtean arlo sozialean ere murgildu dira. Esaterako, hil amaierara heltzen ez diren zuzeneko leteak prestatzen hasi dira: umeentzako janaria, garbiketako produktuak, xaboiak... Gainera, Durangon Lagunkide programa eta etorkinentzako berbeta-lagunak sortu dituzte. Garraio egokituaren zerbitzua ere badaukate.

Baina, eurek ematen duten laguntza bideratzeko herritarren ekarpen ekonomikoa behar dute. Horretarako, kanpaina berria daukate martxan, ‘Orain inoiz baino gehiago’ lelopean. Bestela ere, bazkideen diruagaz eta dohaintzako ekarpenekin funtzionatzen du Gurutze Gorriak, ambulanzien lanagatik Osakidetzatik jasotzen dutenaz gainera.

80 kidetik gorako sarea

Zornotzan dauka Durangaldeko egoitza Gurutze Gorriak. 80 eta 100 kide bitarteko sarea osatzen dute, eta txandaka egiten dute beharra. Urte osoko ordu guztiak ezin izaten dituzte bete hala ere, eta horregatik, behargin batzuk kontratatuta daukate. Txanda bakoitzean, bi eta lau lagun bitarteko egoten dira gutxienez. Egunak



luz egindako simulakroa, Gurutze Gorriaren lana erakusteko.

ez dira berdinak, Camarak azaldu duenez. Batzuetan zortzi irteera edukitzen dituzte, beste batzuetan hogeira ere ailegatu dira.

Boluntarioen onurak

Esti Camarak hamahiru urte daroaz Gurutze Gorrian. Bolondres hasi zen, eta orain heziketa arduraduna da. Pertsonalki jasotzen dutenaz hausnartu du: “Pertsonaie laguntzeak onura asko ekartzen dizkizu. Norbaitek ‘eskerrik asko’ esateak bakarrik, gogobetetasun edo poztasun han-

dia ematen du”. Jendeak sarritan eskertzen ei die euren lana.

Alex Garciak duela hamabi urte hartu zuen Gurutze Gorrian sartzeko erabakia. Neba-arrebak ere badira kide, eta eurek animatuta hasi zen. “Bizitza osoa esan gura du niretzat. Pilo bat gustatzen zait lan hau”. Jendeare probatzeko gonbita egin dio, batez ere, lehen sorospena jakiteari balioa emanda: “Lehen sorospena oinarritzako dela uste dut; denok jakin beharko genuke”. Agustín Medinak urtebete pasa daroa

bolondres, eta bere koadrilakoak ikastaroa egitera bultzatu ditu, “oso esperientzia polita” delako bere ustez.

Euren beharra bihar erakutsiko dute Zornotzan, Ate Irekien Eguna daukate-eta. Tailerrak eta istripu baten simulazioa egingo dituzte, besteak beste. Aurrerantzean ere norabide berean lan egingo dutela diote, baina aldatuta bat edukiko dute behintzat: Osakidetza, euren barik, enpresa pribatu bati esleitu dio 112 zerbitzuko ambulanzien gestioa.



Boluntario berriak topatzeko bidea

Gurutze Gorriak lehen sorospeneko ikastaroak antolatzen ditu urtero-urtero. Aurten, uztailean 32 lagun dabilta ikasten; aste osoan 21 eta asteburuetan 11. Hainbat gai lantzen dituzte: berpizte kardiobaskularra zelan egiten den umea edo nagusia izaterakoan, buxadura edo

traba edukitzean, bihotzekoak jotakoan... “Denetarik. Azkenean, 48 ordu dira eta askorako denbora ematen du”, esan du Esti Camara irakasleak.

Gurutze Gorriko kide berri gehienak ikastaroetan topatzen dituztela azaldu du Camarak: “Honen helburua da jendeak

jakitea zer egin behar den zer edo zer suertatzen zaizunean. Gero, boluntario izateko eskaintza ere egiten dugu”.

Astegunetan, batez ere, gazteak dabilta lehen sorospenak ikasten. Parte-hartzaileetako bat da Josu Garcia, eta aitortu du gustura dabilela ikastaroan. Soroslea izan gura du. Beste batzuek ere ideia beragaz dihardute. Izan ere, sorosle izateko beharrezkoa da ikastaro hau jasotzea, Camarak azaldu duenez.

Abadiñok ez duela Erraldeko kreditua ordainduko dio Navarrok

Erralde osatzen zuten 15 udalek bi milioi euroko kreditua dute banketxei ordaintzeko

> JONE GUENETXEA

Hiltegia osatzen duten 15 udalek Erralde enpresa moduan likidatu egin dute. Baserritar eta langileekin zituzten zorrak kitatu dituzte

dagoeneko, baina Berrizen hiltegi berria eraikitzeke erosi zuten lursailaren kreditua ordaintzea gelditzen zaie. Irtenbide moduan, Mikel Ansotegi Erraldeko pre-

sidenteak azaldu duenez, 90.000 metro karratuetatik 80.000 metro koadroko lur eremua saltzea planteatu dute. Hiltegi berria eraikitzeke 6.000 metro koadro nahikoak dituztela azaldu du Aulestiko alkateak (Bildu). Gainerako lurra saldu, bankuekin duten zorra ordaintzea litzateke helburua. Lursailaren kalifikazioak mugatu egiten du salmenta, okelarekin lotutako jardueretara bideratuta dago-eta.

Abadiñoko Udala da Erralden parte hartzen duen udalik handiena, bai eta diru kopuru

handiena jarri duena ere. Jose Luis Navarro alkateak (Abadiñoko Independienteak) adierazi duenez, Abadiñok ez du kreditu horren “euro bakar bat gehiago” ordainduko: “Bankuekin hipoteka lursailaren kontra egin genuenez, gura badute hartu dezatela lursaila, baina ez dugu diru gehiago horretan gastatuko”. Lursaila saltzea litzatekeela irtenbideetako bat gaineratu du: “4 eta 4,5 milioi euroan baloratua dago”. Proiektua beti egongo dela hor dio Navarrok, baina egoera jasangaitza dela: “Nire aholkula-

riekin berba egin ondoren hartu dut erabakia”.

Durangaldeko beste udal batzuei gai honen inguruan galde-etu eta gero, bankuekin dituzten konpromisoak betetzen jarraituko dutela jakitera eman dute eta kreditua ez ordaintzeak izan ditzakeen ondorioen inguruan kezka agertu dute. Joseba Mujika Elorrioko alkateordearen (EAJ) berbetan, Elorriok bere zatia ordaintzen jarraituko du. Mila Mondragon Mallabiko alkateak (Bildu) ere adierazpen horrekin bat egin du.



Erralde ez ixteko egindako mobilizazioen irudia.

ILARGI
ARGIGINTZA

MERKEALDIA

%70

%60

%50

%40

%30

%20

%15

Askatasun Etorbidea, 20 • 48200 Durango • Tel-Fax: 94 681 24 92

> DURANGO

Txosnagunea Pinondon ipiniko dute aurten, San Fausto jaietan

Bildu eta Aralarren botoekin onartu da; gainerakoak abstenitu egin dira



Duela urte biko jaietan Pinondon hartutako irudi bat.

> MARKEL ONANDIA

Txosnak berriro Pinondon egongo dira aurtengo San Fausto jaietan. Joan zen egunean Kultura Batzordea egin zuten udalean, eta Bildu eta Aralarren botoekin onartu zen; gainerakoak abstenitu egin ziren. Historikoki Pinondo izan da txosnagunea, eta Txosna Batzordeak ere horrela defendatu izan du. Antza denez, Zumar kalea ere egon da aukeren artean, baina Txosna Batzordeak iaz ere esan zuen leku hori ez zela egokia euren ustez. Gaztetxearen alboan, etxeak eraikiko dituzten gunea ere izan ei da beste aukera bat, baina lur hori deskutsatu egin beharko litzateke.

Duela urte batzuk, udalak erabaki zuen txosnagunea Ez-

kurdin ipintzea etorkizunean, tren geltokiaren azaleran. Ordu-ra arte, urterik urte Pinondon, Zumar kalean eta Galtzaretan txandakatzea adostu zuten. Baina, obra atzeratu egin da, eta akordioa ere eten egin zen. Horren ostean, hainbat eztabaida piztu izan dira kokaguneaz; azkena iaz. Lehen aldiz ipini zen Kurutziaga kalean, eta auzotarrak kexatu ziren. Udalak berandu abisatu zituela kritikatu zuten. Jaietan, ambulanzia bat kalera ezin sartu ibili zen. Txosna Batzordeak esan zuen udalak itxi egin zuela sarrera, eta inork ez ziela informatzeko deitu. Udalak ez zuen bere gain hartu erantzukizunik. Artatu behar izan zuten gaztearen amak ere kritika egin zion udalari.

Martxan dago tren geltoki berriko aparkalekua

Alluitz kaletik dauka sarrera, eta 96 leku dauzka

> M.O.

Durango tren geltoki berria 2012ko abenduan zabaldu zuten, baina oraindino badaude lanak egiteko. Gune komertziala erakitzen dabilta, esaterako. Joan zen astean, beste urrats bat egin zuten prozesuan: aparkalekua zabaltea. Euskotrenek prentsa oharra zabaldu du horren berri emanez.

Alluitz kaletik dauka sarrera. Guztira, 96 leku dauzka eta 24 orduko epeak 0,80 euroko kostua ekarriko die erabiltzaileei. Aparkalekutik bertatik dago geltokiko harrera gunera sartzeko bidea, azaldu dutenez.

Funtzionamenduaren inguruko datuak ere eman dituzte. "Erabiltzaileek aparkalekuko sarrera nagusiko makinatik txartela hartu beharko dute, eta euren ibilgailuarekin hirugarren solairura jaitsi", azaldu dute Euskotren zerbitzukoek prentsa ohar bidez. 96 lekuetatik 4 mugikortasun urria daukaten pertsonentzat izango dira.

Aparkalekuaren hirugarren solairua da zabaldu dutena; falta diren biak ETSren esku daude, eta enpresa pribatu bati esleitu diote horren gestioa 30 urterako. Merkataritza gunea ere enpresa berak kudeatuko du.

Montevideo kalea eta musika eskola inguruko parkea zabaldu dituzte

Montevideo kalea urbanizatzeko hirugarren fasea eginda, proiektu osoa amaitu dute; joan zen astean zabaldu zuten kalea trafikorako

> M.O.

Montevideo kalea trafikorako zabaldu zuten joan zen astean, ingurua urbanizatzeko proiektuaren hirugarren fasea burutu ostean. Martxoan hasi zuten. Proiektuari 2010ean ekin zion udalak, eta amaitu berri dute.

Gainera, Montevideon badago beste aldeketa esanguratsu bat: Bartolome Ertzilla musika eskola inguruko parkea ere zabaldu dute. Harrizko hesia kendu dute, eta orain herritar guztiek daukate parkean sartzeko aukera.



Joan zen astean zabaldu zituzten kalea eta parkea.

Bigarren eskuko zerbitzua zabaldu dute Amazulon

Bigarren eskuko sehaskak dauzkate, esaterako

> M.O.

Barrenkalean dagoen Amazulo dendan bigarren eskuko gauzak saltzen hasi dira. Dendako espazio bat egokitu dute horretarako, eta erabiltzen ez diren gauzak eroateko gonbita egin diote jendeari. Han dauzkate, esaterako, umeentzako kotxeak eta sehaskak. Gero, bertan erosi ahal dira, bai eta Internetez ere, arduradunek azaldu dutenez.

Umeen hazkuntza eta garapena errespetatzen duten produktu naturalak saltzen dituzte Amazulon. Baina, dendaz aparte, beste gune bat ere eduki behar zuela uste zuten, topagune bat. Hasiaren tailerrak eman zituzten, adibidez.

Bestalde, ikastetxeetarako altzari motrizak saltzen hasi dira, posizio ugarietako aulkiak eta zabuak, besteak beste.



'Parot doktrina' indargabetzeko eskaera, gaur

> M.O.

Herrira mugimenduak deituta, Herritarron Epaia ekimena helduko da gaur Durango. Euskal preso batzuei ezartzen zaien 197/2006 doktrina, *Parot doktrina*, indargabetzea eskatuko dute. Hainbat presori zigorrak luzatu dizkiete doktrina hori erabilita, eta egungo egoeran kaltegarria dela uste du Herrirak, "giza eskubideen kontrakoa" izateaz gainera. Estrasburgoko epaitegiak legezkoa den edo ez ebatzi behar du.

Erabakiaren esperoan, Herritarron Epaia dinamika sortu dute. 20:00etan izango da Andra Marin, eta herritar bakoitzak bere aldarria idatzi ahal izango du liburu berezi batean. 19:00etan, Jose Mari Sagardui *Gatza* preso ohia- ren inguruko dokumentala eskainiko dute Intxaurren.

PSE-EEK dio udal inkesta "partidista" dela

EAJk inkesta bere intereserako erabili duela dio

> M.O.

PSE-EE alderdiak prentsa oharra kaleratu du EAJko gobernu taldeak agindutako inkesta baten harira. Sozialisten ustez, alderdiaren intereserako erabili du EAJk, "usain partidista eta elektoralista" hartu diote: "Durango Udal Ikerketa izenagaz moztarotutako zundaketa elektoral honek 2011n egindakoa dakar gogora, EAJk udaleko 20.650 euro antzeko inkesta batera bideratu zuten".


Pilar Rios zinegotziak azaldu du udalak 2011tik dauzkala aurrekontuak luzatuta, eta alkateak horregatik eduki duela partida bat lan horretarako: "Ez du konplexurik eduki partida hori erabiltzeko, jasaten gabiltzan arazo ekonomikoen gainetik. Badirudi EAJk inkestetan milaka euro gastatu eta

beste aldera begiratzen duela, Durango hainbat familia sufritzen ari diren egoera larriaz ohartu barik".

Informazio falta

Riosek azaldu du ekainaren 17an eduki zutela inkestaren berri, Bozeroaleen Batzordean. Hala ere, gaiaren inguruko informazio falta kritikatu du: "Sail guztietan kontsultatu dugu, eta inork ez daki ezer kontratazioaz. Alkateordeak berak alkatetzara bideratu gaitu, berak ez dakiela ezer esanez". Kontabilitate programan ez dela ezer agertzen eta udal idazkariak ere ez dakiela ezer ohararazi du alderdi sozialistako kideak.

Arrazoi horiek emanda, Riosek uste du "iluntasunez inguratuta" dagoela gobernu taldeak garatutako inkesta hori.



Hemen, Kafeari Baqué' esaten diogu

www.baque.com

> BERRIZ

Herriko basoen zezpalagaz biomasa egiteko aukera aztergai

Hazi fundazioak Berrizko basoen masa neurtuko du aukerarik dagoen jakiteko

> AMAIA UGALDE

Basoak garbitzerakoan ateratako zezpalagaz biomasa egiteko aukera aztertuko dute Berrizen. Berogailuetarako energia sortzea izango litzateke asmoa. Horretarako udalak Hazi fundazioagaz eta EEE Energiaren Euskal Erakundeagaz hitzarmena sinatuko du, basoen azterketa egin eta biomasaren prozesua egingarria den ikusteko.

Orland Isoird alkateak azaldu duenez, herriko eta gertuko

basoetatik ateratako zezpala erabiltzeko aukera aztertu gura dute. Biomasa, urtean gas naturalagaz baino 12.000-14.000 euro gutxiago gastatuko liratekeela nabarmendu du.

Ustiapen jasangarria

Lehenago, Hazik basoen masa neurtuko du, eta gero, EEEk biomasa sistema ezartzeko pausoak definituko lituzke. Udalbatzan aho batez onartu dute hitzarmena. Bilduko Xabi Zalduaren ber-

betan, Xabi Zalduak: "Azterketa ostean, ez daukagu konpromisorik sistema ezartzeko. Basoen ustiapena jasangarria izan behar dela bermatu beharko genuke". EAJ eta PSE-EE bat etorri dira irizpide horrekin.

Biomasa, urtean gas naturalagaz baino 12.000-14.000 euro gutxiago gastatuko lirateke



Eguaztenez udalbatzan onartu dute hitzarmena sinatzea.

> IZURTZA

Jose Mari Alberdik ordezkatu du Maialen Sarasua zinegotzi lez

Alberdik 54 urte ditu, eta izurtzarra da; hauxe da horrelako kargu bat izango duen lehenengo aldia

> J. DERTEANO

Orain urte bi hasi zen legegintzalditik Izurtzako Udalan Bildu alderdiko zinegotzi izan den Maialen Sarasua bere kargua uztea erabaki du. Erabaki horren berri eman zuten joan zen eguen eguerdian egindako udalbatzarrean.

Bere ordezkari tokia Jose Mari Alberdik hartuko du. Bera zen zerrendan hurrengoa, joan zen astean egin zioten proposamena eta Bilduko zinegotzi kargua onartzea erabaki du. Alberdik 54 urte ditu eta izurtzarra da. Ogibidez iturgina da, eta Asaser enpresan lan egiten du.

Ez du esperientziarik udal jardueran, eta hauxe izango da zinegotzi lez jardungo duen lehenengo aldia. Postua gogotsu beteko duela adierazi du, eta zinegotzi karguak eskatzen dituen lanak egiteko denbora atera beharko duela: "Ilusioz onartu dudana kargua da. Ikusi egin beharko dut denbora non-

dik ateratzen dudana, bestela ere hainbat kontutan nabil-eta. Nire denbora eta zereginak ordenatu beharko ditut", dio Alberdik.

Momentuz, legegintzaldi honetarako eman du baietza, azaldu duenez. Hurrengoan aurkeztuko den ala ez legegintzaldi amaieran baloratuko duela adierazi du.

Momentuz legegintzaldi hau amaitu arte eman du baietza; gero erabakiko du hurrengoan zer egin

"Ilusioz onartu dudana kargua da; denbora ateratzeko nire zereginak ordenatu beharko ditut"

> ZALDIBAR

Astelehenean ekingo diote haurreskola muntatzeari

> I.E.

Arantza Baigorri alkateak adierazi duenez, uztailaren 15ean ekingo dio Egoin enpresak haurreskolako aurrefabrikaturiko eraikina muntatzeari. Eskola eremuan, eraikin berrietako saneamendurako, komunikaziorako eta elektrizitaterako hodiak atontzen dabilta orain.

Denboraz oso estu abiatu zuten obra, baina haren martxagaz oso pozik daudela diote udaleko arduradunek: "Dena oso ondo planifikatuta dutela ikusten dugu". Obraren jarraipena egiteko batzartu egingo dira eguenero, eta batzarrotan ematen dizkiete obraren arduradunek azalpen guztiak alkateari eta hirigintzako zinegotziari.

Ekainaren 17an abiatu zituzten obrak, eta abuztuaren 31rako egiteko guztiak amaitutzea aurreikusiko dute. Haurreskolako eraikin berria ipintzeaz gainera, biomasa bidezko galdara atontzeko lanak ere egingo dituzte.

diegu inguru hau garbi mantentzeko eta txakurren kakak dagokien tokian botatzeko". Bertan, kakak botatzeko edukiontzi berezi bat dago, baita batzeko poltsak ere.

Zaintzeko deia

Horretaz gainera, herriko beste berdeguneak ere zaintzeko eskatu du udalak, "horiek mantentzeaz arduratzen diren udal langileei zor zaien errespetuagatik". Kanposantu aurrealdea edota aparkaleku ingurua aipatu dituzte berdeguneen adibide legez.

bertara eroaten dute txakurra, eta ez dute kakarik batzen. "Batzuek ondo egin arren, txakurren kakak topatzen jarraitzen dugu egunero".

Umeek jolasteko lekua denez, kezka agertu du udalak: "Arazo honen erantzuleei eskatzen

> ABADIÑO

Jaietan murgilduta daude mendiolarrak martitzenetik

Domekara arteko jai egitaraua prestatu dute

> ITSASO ESTEBAN

Bost egunerako egitaraua prestatu du Mendiola auzoko Jai Batzordeak: martitzen iluntzean altxatu zuten donien atxa, eta domekara arte hainbat ekintza antolatu dituzte.

Gaur gauerako, esaterako, kontzertu interesgarria antolatu dute: Durangaldeko The Mockers eta Trastorno taldeek eta Irungo BAD Sound System taldeek joko dute, 23:00etatik aurrera. Rock, punk eta reggae doinuak eskainiko dituzte hiru talde horiek, hurrenez hurren.

Egun guztirako eta gustu guztietarako ekintzak eskainiko dituzte Mendiolar jaietan, bihar ere: 09:30ean hiru orduko ibilaldia abiatuko dute Mendiolan zehar; herri kirolak izango dira 11:30ean; kotxe klasikoak erakusketa 13:00etan; ondoren, herri bazkaria; umeentzako jolasak, ardi txakur, tortilla eta bolo txapelketak arratsaldean; eta amaitzeko, Luhartz.

Domekan, 11:30eko mezaren ostean, auzoko Alluitz dantza taldearen 12:30eko emanaldia-

gaz, eta jaietako errifen zozketagaz emango dituzte San Kristobal jaiak amaitutzat, donien atxa kenduta.

Durangaldeko Trastorno eta The Mockers, eta Irungo BAD Sound System ariko dira bihar, zuzenean

Alluitz taldearen dantza emanaldiagaz eta errifen zozketagaz emango dituzte jaiak amaitutzat

Martitzen iluntzean hasi zituzten San Kristobal jaiak Mendiolan. Txistularien emanaldiagaz girotu zuten jaien hasiera. Bertsularien saioa izan zen gozagai, gero: Aitor Bizkarra, Peru Magdalena eta Fredi Paia kantatu zuten.

> MAÑARIA

Umeen parkeko belartzan ezingo da txakurrik sartu

Batzuek txakurrak bertara eroaten segitzen dute

> M.O.

Mañariko Udalak oharra zabaldu du bere hilabetekarian, umeen parkeko belartzan txakurrik ezin dela sartu gogorazteko. Bertan txakurren kakak topatzen jarraitzen dutela azaldu dute. Antza denez, batzuek

Udaleko kultura eta kirolen kontseiluetan parte hartzea

> I.E.

Kultura eta kirol kontseiluetan parte hartu gura duten abadiñarrek izena emateko deialdia egin du Abadiñoko Udalak. Izan ere, herritarrek kirolari eta kulturari dagozkion gaietan aholkulari jardutea gura dute. Hala, kontseiluetan parte hartzeko gonbidapen berezia egin diete kultura eta

kirol elkarteetako kideei. Izena eman duten herritarrek, udal taldeen ordezkari banak eta udaleko teknikariak osatuko dituzte kontseilu horiek.

Udaleko Kontseiluen erabakiak ez dira lotesleak izango, baina gobernu taldeak azpimarratu du udalgintzako erabakiak hartzerakoan aintzat hartuko dituztela.

Ima Zapardiez kirol eta kultura arloko zinegotziak esan duenez, "herriko elkarteak egunero ari dira herrian lanean, eta inork baino hobeto dakite zein diren arlo bakoitzeko beharriak".

> DURANGALDEA ASTEON**Argiñetako lanak ezagutzeko azken bisitak asteburuan**

Elorrioko Argiñetako gune arkeologikoan garatzen dabiltzan lanak ezagutzeko aukera eman du udalak. Hainbat egunetan bisitak eratu ditu, eta asteburu honetan egongo da azken aukera. Interesdunek turismoa@elorrio.net helbide elektronikora idatzi behar dute, edo 605 726 420 telefonora deitu.

Zubiaurre familiaren inguruko berbaldia, bihar, Garain

Zubiaurretarren inguruko berbaldia eratu dute biharko Elizabarrin, 12:00etan. Javier Viar Bilboko Arte Ederren Museoko zuzendaria eta Iker Gonzalez-Allende Nebraskako unibertsitateko irakaslea izango dira hizlariak. XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako artistak izan ziren Zubiaurretarrak.

Sanfaustoetako kartela bozkatu daiteke udalaren webgunean

Bost kartel finalista aurkeztu ditu Durangoko Udalak. Botoa emateko aukera edukiko dute herritarrek Internet bidez. Hain zuzen udalaren webgunean (www.durango-udala.net) ikusi eta bozkatu daiteke kartel gustukoena. Guztira, hamaika irudi entregatu zituzten, baina udalak bost sartu ditu finalistaren artean.

Santa Mañako jaiak ospatuko dituzte datorren egunean

Iurretako Santa Mañan jaiak ospatuko dituzte uztailearen 18an. 11:30ean, meza egongo da Santa Maña basilizan, eta ondoren, luntxa eskainiko dute; tortilla eta karramarroak, esaterako. Tortilla txapelketa ere egingo dute: izen-emateak 10 euro balio du bikoteko. Igel txapelketa ere egingo dute. Ondoren, Ameztako eskolan briska txapelketa (18:00etan) eta umeentzako jolasak (18:30ean) egongo dira.

> ELORRIO**Joseba Gorostizak jaurtiko du Ferixa Nausikoetako txupinazoa**

Txirrindulari Elkarteko presidenteak abuztuaren 31n emango die hasiera jaiari

> ERREDAKZIOA

Elorrioko Udalak Ferixa Nausikoetako jai egitaraua aurkeztu du. Jakitera eman dutenez, Joseba Gorostiza Elorrioko txirrindulari taldeko presidenteak botako du txupina jaiari hasiera ofiziala emateko.

2013ko Ferixa Nausikoek 139.000 euroko aurrekontua dute. Diru atal gehienetara ia zokoagaz alderatuta %10 gutxiago bidertatu dutela azaldu du Ana Otadui

alkateak: "Azokako diru atala da jaitzi ez duguna, iaz murrizketa izan zuelako". Aste bitarteko ekitaldietan murriztu dute gehien. Herritarrek parte hartzen duten ekitaldiak indartu gura izan dituzte. Aurten gainera, Jai Batzordea koadrilekin bildu da hainbat ekitaldi antolatzeke. Karrozen jaitziera izan da foro berri honetako eztabaidagaietako bat. Aurten, 10 karrozek eman dute izena dagoeneko: "Uztailearen

amaieran egingo duten batzarraren aukera dago oraindik parte hartzeko". Jaietako nobedadeetako bat Elorrioko I. Artzain Txakur Lehiaketa da. San Agustin auzoan orain 20 urte inguru antolatzeari utzi zioten txapelketa berreskuratuko dute.

Maialen Arregi da aurtengo Ferixa Nausikoetako kartelaren egilea. 500 euro jaso ditu Jone Guenetxea *Anboto* astekariko zuzendariaren eskutik.



Eskerretik eskuinera, Gorostiza, Otadui, Arregi eta Guenetxea.

Eskapararte martxan dago: 25 argazki 25 dendatan**> MARKEL ONAINDIA**

Elorrioko Argazkilari Taldeak antolatzen duen Eskaparartek laugarren edizioa beteko du aurten. Uztaile hastegaz batera ipini dute martxan, eta inoiz baino partaide gehiagogaz gainera.

Guztira, 25 argazkilariren lanak egongo dira ikusgai herriko 25 komertziotan. Abuztua amaitu arte iraungo du, argazkilaritalkoek azaldu dutenez.

"Argazkia herritarrei hurbiltzea da helburua, era desberdin

batean", adierazi dute antolatzaileek. Eta, ekimena urterik urte sendotuz doala uste dute: "Ekintza, herritarren artean ezagun izatea lortu dugula uste dugu. Urtero, harrera ona izan du ikusleen aldetik, eta dendarien eta argazkilarien arteko esperientziak hobetuta, lan ikusgarriagoak lortu ditugula uste dugu".

Parran, erakusketa

Udaletxean eta Iturrin mapa bat egongo da eskuragarri, erakusketa osoaren informazioa batzeko. Argazkilarien datuak eskainiko dituzte, bai eta bakoitzaren lana zein komertziotan dagoen ere.

Horretaz gainera, ekimenaren gehigarri legez, Parra tabernan beste erakusketa berezi bat ipiniko dute, *Elorrioko Argazkiak* izenpean.



Aurtengo Eskapararte ekimenean 25 argazkilarik parte hartu dute.

> MALLABIA**Salamatu-Gomeziagako auzo bidea konponduko dute****> JONE GUENETXEA**

Urtarrileko euriteek kalteak eragin zituzten Salamatu-Gomeziagako auzo bidean. Lui-ziak lur kantitate handia mugiarazi zuten. Puntu bi izan ziren kaltetuenak, eta ondorioz, bidea itxi egin zuten. Mila Mondragon alkateak azaldu duenez, udala eguraldi onaren zain egon da bidea konpontzen hasteko. Construcciones Urre enpresari esleitu dizkiote lan horiek. 135.000 euroko aurrekontua izango dute bidea konpontzeko.

Bidea itxita egon den epean, auzo horretako base-rietako bizilagunek beste

sarrera bat erabili dute joan-etorrietarako. Mallabiko Udala segurtasun neurriak hartzen dabil orain. Mondragonek jakitera eman duenez, datorren aste inguruan lanei ekingo diete Salamatu-Gomeziagako bidea prest uzteko. Hilabeteko epea aurreikusitako dute lanak amaitzeko.

Construcciones Urreari esleitu dizkiote lanak. 135.000 euroko aurrekontua dute

ALBERDI

Bertako okela
Aurretiaz
prestatutako
janariak

DURANGO

Askatasun etorbidea 1 - Durango
Telefonoa: 94 681 76 58



▶ Berbaz

Jose Luis Lizundia Askondo | Euskaltzain emeritua | 75 urte, Abadiño



“Euskarak hain urte gutxian egin duen aurrerapausoa ikaragarria da”

75 urte betetakoan euskaltzain emeritu izendatu dute Jose Luis Lizundia. Urte hauetan guztietan egindako lan aktiboa utzita, ikerketetan ibiliko da abadiñarra. Euskaltzaindiak orain arte egindako lanari eta etorkizunari buruzko galderak erantzun ditu

> AMAIA UGALDE

Euskaltzain emeritua zara. Euskaltzainditik jubilatu egin zarela esan gura du horrek?

Ezin dut botoa delegatu, ez daukat kargurik, batzordeak ere utzi ditut. Unibertsitateko irakasleak ere emeritu izatera pasatzen dira. Emerituek zer egiten duten? Doktore tesi bat zuzendu, hitzaldiren bat eman... Ezin dute eskolarik eman. Ni hileroko batzarretara joango naiz, eta Azkue biblioteka eta artxiboan ikerketak egingo ditut... Baina ez dut kargurik ez kargarik izango.

Euskaltzaindiak bere ibilbidean egin dituenetatik, zer lorpen nabarmenduko zenuke?

Hizkuntza normalizatzeko, arlo guztietan egon behar da: irakaskuntzan, hasi haurtzaindegitik eta unibertsitatara; administrazioan, hasi udaletxean eta gobernaino; eta komunikazio sozialean. Hemen egoera horren guztiz kontrakoa izan genuen, eta hori gaiztoa lortu dugu. Hori dena egiteko akademia bat behar zen. Hizkuntzaren normalizazio-ko parte bat normatibazioa da, nahiz eta bakarra ez izan. Askotan esaten da; “Euskaltzaindiak zenbat arautzen duen!”. Eta gaztelaniak? Gure eta gaztelaniaren artean oinarritzko alde bat dago: bere garaian, euskararen,

galegoaren eta katalanaren onomastika batzordeek batzarrak egin genituen, RAEk toponimo batzuk ofizialki gaztelaniaz ipini gura zituelako. Prentsaurreko batean, kazetari batek galdetu zigun ea hiru hizkuntzetako onomastika batzordeak batu bai, baina zelan ez ginen RAEko batzordeagaz batu. Ez daukako! Eta ez du behar: Gaztelaniak 150 urteko zentralismoa dauka, eta eskoletan, administrazioetan eta komunikabideetan ez dira zalantzan ipintzen lekuen izenak. Gure hizkuntzek normalizazioa duela gutxi hasi dute, eta perspektiba historiko hori ez da ahaztu behar.

Esaten dute hizkuntza gutxitu askorentzat jarraitzeko eredu dela euskararen normalizazio prozesua...

Kitxuek eta beste hizkuntza komunitate askok hori esaten dute, bai. Hemen, izugarritzko abiaduran egin dira aldaketak. Gure hizkuntzak minoritarioa izateaz gainera, gutxitua da; Gaztelak hizkuntza dominantea transportatu du gurera, eta ikustekoa da Araban eta Nafarroan hizkuntzak zelako atzerakada geografikoa egin duen. Orain mende bat, euskara ia Lizarraino iristen zen. XIX.mendearen amaiera partean oraindik Bara-

kaldon euskaraz egiten zen. Guretzako hizkuntzaren berreskuratzean oinarritzkoa izan da ofizialtasuna eta ikastolen eragina, D eredu, eskola publikoaren legera pasatzea... Nik ametsetan ere ez nuen pentsatuko eredu hori ofizialtasunera pasatuko zenik. Hizkuntza bat normalizatzeko, hezkuntzan euskara erabiltzea ezinbestekoa da. Baldintza ezinbestekoa da, baina ez da nahikoa, baldintza ezinbestekoa den moduan euskara batua. Baina hori bakarrik ere ez da nahikoa. Pazientzia historikoa behar dugu. Finlandiak ia 80 urte behar izan zituen hango hizkuntza normalizatzeko. Euskarak hain urte gutxian egin duen aurrerapausoa ikaragarria da, baina alor batzuetan

“

Zergatik ez daukate gaur egun, Atxondok, Abadiñok, Izurtzak, Mañariak, Mallabiak, Iurretak, Garaik... toponimia ikerketarik?”

oraindik asko dago egiteko. Osasun Sailean, adibidez, ez da egin ganorazko euskalduntze planik.

Euskararen erabilera zelan ikusten duzu?

Hor beste analisi bat egin behar-ko litzateke, zergatik euskara jakinda ez duen egiten jendeak. Kontzientziario falta bat dago. Euskal Herriaren gehiengo abertzalea izango da, baina Euskal Herriaren gehiengo ez da euskaltzalea. Ni parlamentarioa izan nintzenean, galegoek eta katalanek ez zuten ulertzen zelan euskaldunen artean gutxiengo batek egiten zuen euskaraz. Ez da egia, zoritxarrez, euskal gizartea euskaltzalea denik. Guraso askok umeak eskolan euskalduntzera eroan bai, baina gero etxean ez dute euskara erabiltzen. Fishman soziolinguistak behinola Gasteizen esan zuen irakaskuntza eta ofizialtasuna oinarritzkoak direla hizkuntzen normalizaziorako, baina oinarritzkoena familia dela. Familian hizkuntza ohikoa, egunerokoa, euskara izatea lortzen ez den bitartean, ez da euskararen normalizaziorik lortuko.

Euskaltzaindiak orain momentuan zer erronka izan beharko litzuzke?

Gizartearen eskariak entzuten

jakin beharko du Euskaltzaindiak. Normatibazioan euskarak erronka asko dauka oraindik. Esate baterako, onomastikako alorrean, herri izendegian lan asko egin da, baina oraindik herri toponimian gauza asko falta da egiteko. Administrazioak Euskaltzaindiarekiko zorrotzagoak izan beharko lirateke. Ikerketak egiteko eskatu eta baliabideak eman behar dituzte. Gaur egun, zergatik oraindino Atxondok, Abadiñok, Izurtzak, Mañariak, Mallabiak, Iurretak, Garaik... ez daukate toponimia ikerketarik? Udal administrazioek baliabide ekonomikorik ez badute, goragoko administrazioek diruz lagundu behar lukete. Gaur egun, euskal filologo eta historialari asko dago langabezian, horrelako lanak egiteko prestatuta, edo prestatzeko moduan. Euskaltzaindian ikastaro bereziak eskaintzen ditugu behar horietarako.

Orain ikerketan jardun gura duzula esan duzu. Badaukazu zer edo zer esku artean?

Euskaltzaindiaren historia lantzen ibili naiz, baina hori albo batean utzi dut, eta orain, euskalgintzaren historia aztertzea gurako nuke. 1970 eta 1980 hamarkadetako euskalgintzaren barneko historia.

Miren
Txabarri
Zuazo

Montoste
txokoa



Eusko Label errezeta: Gisatua

• sei lagunentzat

OSAGAIK:

- Eusko Labelen 1,5 kilo gisatu (Gallastegi harategia)
- 2 piper berde
- 3 azenario
- Tomate bat
- 2 piper gorri
- 3 kilo patata
- 2 kipula
- 4 berakatz ale
 - Salda
 - Olioa
 - Gatza
- Eusko Labeleko letxuga



1 Errezeta hau osatzeko hainbat osagai behar ditugu. Lehenengo, gisatuari kolorea emango diogu zartaginean. Ondoren, barazkiak egingo ditugu. Azkenik, okela, barazkiak eta salda kazola berean batu, eta su txikitan utziko ditugu.



2 Lehenengo gisatua urunagaz nahastu behar dugu. Ez da komeni urun gehiegi, gisatua gainealdetik estaltzekoa adina bakarrik. Ondoren, gisatuari zartaginean kolorea emango diogu, dena kazolan batu aurretik.



3 Gisatua egin dugun olio bera aprobetxatuta, barazkiak egingo ditugu zartaginean. Kipula eta berakatzak lehenengo; ondoren, piper berdea, piper gorria eta azenarioa. Barazkiak prest daudenean, gisatuagaz nahastu eta apurka salda gehituko diogu. Ondoren, su txikitan egiten utziko dugu.



4 Gisatua bigundu denean, eta osagai denekin nahastu denean, zerbitzea bakarrik geratuko da. Gisatuari laguntzeko, Eusko Labeleko letxuga freskoagaz eta kipulagaz egindako entsalada proposatzen dugu.



Goi-mailako
elikagaiak



Eusko Label produktuekin osatutako otzara irabazi gura baduzu, bidali mezua zure izen eta telefono zenbakiarekin zozketa@anboto.org-ra. Asteburuan jasotzen ditugun mezuen artean zozketatuko dugu.

Zaldibarko jaiak eta kartela

Udal honetatik adierazi nahi dugu gure haserrea eta gure desadostasuna, hainbat mediotan publikatutako (eta ez publikatutako) albiste dela-eta.

1. Jaietako kartela: ideiak, ideiak dira. Gu ez gara inor persona baten hitza zalantzan jartzeko, eta ez dugu inolaz ere onartuko gure herritar bati errespetua galtzea.

2. Hainbat mediotan ikusi dugu kartelaren berria, eta horietako batzuetan (digitala edo mistoa), jendeak bere iritzia eman ahal izan du. Batzuetan, oso desegokiak eta iraingarriak ere izan dira, eta medioak ez du mugarik jarri.

3. Zaldibarko jaietan gauza gehiago ere izaten ditugu, ez bakarrik beste kartel baten antzekoa den gure kartela.

180 partaide izan duen Bizkaiko Birako etapa internazionala, Durangaldeko esku pilotako finala, Nafarroatik etorritako erraldoi konpartsa (hemen ez direnak sarri ikusi), olinpiadetan herriko 7 elkartek parte hartzea... Herritarren arteko giro aparta... Non daude notizia horiek? Non daude argazkiak? Non kazetariak?

Zaldibarko Udala

> KLIK BATEAN



Kakarik nahi? Ez, eskerrik asko

“Dagoeneko urtebete pasa da animalien ordenantza onartu zenetik, eta zoritxarrez, gure herriko kaleek kakaz bete jarraitzen dute.

Noiz hartuko ditu EAJk hartu beharreko neurriak?”

Elorrioko Bildu

SEI HANKAKO MAHAIA

URDASPAL BOLINAGA

Bildu




TXOSNAK

Uztailean gaude, eta jai giroa da nagusi Euskal Herriko hainbat herritan. Urte osoan gogor lan egin ostean, merezitako oporrak heltzen doaz, eta hain bereziak diren jaietaz gozatzeko garaia da, merezi dugu.

Bereziak dira jaiak Euskal Herrian, eta ez bakarrik antolatzen diren jai erraldoiengatik; tokiko gobernu desberdinek hartzen duten jarrera ulergaitzengatik ere bai. Iruñean adibidez, San Ferminak 20 minutu berandu hasi ziren, ikurrin erraldoi bat zegoelako eta bertako gobernu taldeari (UPN) baita beste alderdiei –tartean Nafarroako PNV-ri (NaBai)– desegokia iruditzen zitzaielako ikurrinaren presentzia. Euskal Herrian!

Durangoan, pasa den astean erabaki zen aurtengo San Faustoetan txosnek izango duten kokalekua; Pinondo. Urtero-urtero azken ordura arte ez denez kokapena erabakitzen, Txosna Batzordeak aurrea hartu eta uda hasierarako kokalekua aukeratuta egoteko eskatu zuen, eta horretarako toki desberdinak proposatu zituen. Aukeratzea tokatzen zen momentuan, harritura geratu ginen ikustean Aralarrek eta guk (Bildu) bakarrik eman genuela gure iritzia, beste taldeak –PNV, PSOE eta PP– abstenitu egin baitziren. Ez zitzairen toki bat bera ere egokia iruditzen antza, edo agian, ez dituzte txosnak nahi, nahiz eta jaien bukaeran hiru alderdiek urtero esaten dituzten haien inguruko hitz politak.

Zergatik jarrera horiek? Beharbada, beraien kontroletik kanpo geratzen direlako, eta kontrolpean ez izate horrek urduri jartzen dituelako? Hori ardura falta da! Herritar guztien ordezkariak zarete, eta ez bakarrik zuen alderdietako jarraitzaileena. Gora jai parte-hartzaileak!!!



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - astekaria@anboto.org

• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • NAN zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideei jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

-DATUOK BARIK, EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko uztailaren 12a
11. urtea - 508. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretzi Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onaindia
eta Amaia Ugalde.
Maketazioa:
Nuria Hernández.
Zuzentzailea: Goitz Etxeita.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
Zalaoa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

> MUSIKA

“Elkarri begiratuta badakigu ondo goazen edo norbait galduta dabilen”

Asier Elias, Dani del Valle eta Liher Granados gazte durangarrak eta Itziar Castrillo musika eskolako irakaslea dira Free Ends jazz laukotea. Azken hirurak batu dira taldeari buruzko elkarrizketan

> ITSASO ESTEBAN

Musikari bezala, zer ematen dizue Free Ends taldeak?

Itziar Castrillo: Jazz musika jotzeko musikariak hurbil topatzea ez da erraza, oraindik ere musika minoritarioa baita, eta jende nagusiagoari lotua. Opari bat izan da. Nabarmentzekoa da baita, taldekideen gaztetasuna: bereizgarria da gazteak izanda jazz musikan horrela murgiltzea. Aukera bikaina da hemen bertan jazz lantzeko.

Liher Granados: Ikasteko aukera paregabea da: musika asko gustatzen zait, eta talde honek egunean mantentzen nau. Asko ikasten dut eurekin.

Zer esperientzia izan duzue aurretik musikan?

Dani del Valle: Hasi, heavy metal talde batean hasi nintzen 15 bat urterekin, Zangalatraba bikotean aritu nintzen Mariano Estudilloekin, gero Tabula Rasa taldean, Mongorekin ere jo dugu, Cuestión de Costumbre taldean ere bai... Eta orain Iratzar erromerian, Baraia abeslariarekin, eta Free Ends-en ere badihardut.

I.C.: Nik saxo ikasketak klasikoak egin nituen, eta duela bost urte

inguru hurreratu nintzen jazzera eta inprobisaziora. Sutik ska rock taldean hasi nintzen, Al Jazeera taldean funk rocka egin genuen zortzi urtez, Kataloren azken birako kontzertuetan jo nuen, eta The Traveling Brothers Big Band eta Free Ends taldeetan nabil orain.

L.G.: Saxoa jotzen nuen umetan, baina baxura aldatu nintzen. Trapatoni, Sokaide, Mongo, Zirkina, eta Tabula Rasa taldeetan jo dut, eta Baraia abeslariagaz eta Free Ends-en dihardut orain.

Oso anitza da taldea.

L.G.: Bai, baina azken finean, musikan gauza bera bilatzen dugun denok: ondo pasatzea, eta gure artean taldekideak ez ezik lagunak ere izatea.

I.C.: Adin tarte desberdinetakoak gara, eta bakoitzak ibilbide eta helburu bat du, baina azken harreman estua egin dugu, eta jotzerakoan begirada batekin badakigu ondo goazen, edo baten bat galduta dabilen...

Jazzean oso garrantzitsua da musikariek elkar ezagutzea.

D.V.: Bai, asko igarri dugu zenbat eta gehiago jo asko hobetzen



dugula: hasieran, bakoitzak berea egiten zuen, eta orain, askoz erosoago gabilta, besteak jotzen dutena entzuten.

I.C.: Irailean hasi ginen, eta azaroan Durangoko Platerueneko Jam saioa zabaldu genuen. Erronka horiek izan ditugu akuilu lanean jarraitzeko.

Zer da zuentzat inprobisatzea? Musikari denek dute inprobisadore bat barruan?

D.V.: Zure lengoia propioa garatzea da inprobisazioa. Besteen lengoia imitatzen ikasi behar duzu, baina gero zurea garatu. Asko landu beharra dago.

I.C.: Jazz estandarra hartzen dugu gida bezala, eta horren interpretazio bat egiten dugu. Estandarrak baina, askatasun osoa ematen du melodia eta errit-

moak garatzeko. Buruan material eta baliabide asko eduki behar duzu momentu batean ganorazko zerbait inprobisatzeko.

Durangaldean zelan dago jazz mugimendua?

I.C.: Jam saioak antolatzen hasi ginenetik agertzen da mundu horretan dabilen jendea, baina ez gara asko. Plateruenean eta Erorrion jam saioak egiten ditugu. Halakorik antolatzen ez bada, entzuleek ez daukate musika mota hau ezagutzeko aukerarik, eta musikariak ez dauka non jo.

Musikenen goi mailako musika ikasketak egiteko sarrera proba gainditu berri duzu.

D.V.: Asierren eta bion goi mailako musika ikasketetarako probak prestatzeko sortu genuen Free Ends. Klasikoak baino lotura handiagoa daukalako guk entzuten dugun musikarekin aukeratu dugu jazz. Jazz ikasteko motibazio bikaina izan da taldea.

“
Buruan material eta baliabide asko eduki behar duzu momentu batean ganorazko zerbait inprobisatzeko”

Traña-Matienako Basoa tabernako monologoaren lehaketan ezagutu zuten Itziar eta Dani taldekideek elkar: lehiaketa horren finalean jotzeko talde bat sortzea proposatu zuten Itziarrek, eta horrela sortu zuten Free Ends honen aurrekaria den Pans&Company taldea.

Durangoko musika eskola izan dute urte batzuk geroago elkargune: bertan saxo irakasle dihardu Berangon jaio eta Abadiñon bizi den Itziarrek, eta eskola horretan egin dituzte musika ikasketak beste hiru taldekideek. Azaldu digutenez, jazzarekin lehenengo hartumana, Ander Ertzilla musikari durangarrarekin egin

zuten taldekideek. Ekainaren 7an, emanaldia eskaini zuten laukoteak Durangoko musika eskolan (www.myspace.com/free.ends helbidean daukate emanaldi hartako bideo bi ikusgai).

Astero-astero behin edo birritan elkartu izan dira azken hilabeteetan entseguetarako. “Ez genuen uste horrelako serio ariko ginenik”, diote: “Musika eskolako konboan, irakasle baten gidaritzagaz jotzera ohituta geunden, baina jazz gure kontura egitea esperientzia berria izan da”. Errepertorioa aukeratu eta zelan landu erabaki dute, eta lauren artean eman diote abesti bakoitzari forma.

Durangoko musika eskolan eskaini zuten lehenengo kontzertua



> MUSIKA

Fran Lasuen biolinean eta kantuan, eta Jose Luis Canal pianoan ariko dira Kurutzasantun

Uztailaren 18an, Durangoko Kurutzasantu museoan eskainiko dute 'Gauzak' ikuskizuna

> ITSASO ESTEBAN

Jose Luis Canal Burgosko pianista eta Fran Lasuen musikari eibartarrak elkarlanean abiatutako proiektua da *Gauzak*. Lasuen biolinean eta kantuan, eta Canal pianoan dabilta ikuskizun horretan.

Uztailaren 18an, Durangoko Kurutzasantu museoan ariko dira Lasuen eta Canal, Uda Klean Bizi programazioaren barruan. Euren kantuetan, "gogoak, ke-xak, galderak eta *saudadeak*" eskainiko dituztela azaldu dute musikariek eurek.

Lasuen biolina jotzen eta kantuan, eta Canal pianoan dabilta 'Gauzak' izeneko ikuskizun honetan

Iazko urte amaieran, Zornotzan eskaini zuten kontzertuan estreinatu zuten *Gauzak*. Diskoa aurkezteko kontzertuak eskaini

beharrean, beste ordena batean dihardu musikari handion bikoteak: kontzertuak ematen hasi dira lehenengo, eta aurrerago daukate zuzeneko diskoa grabatzeko asmoa.

Kontzertuak ematen hasi dira lehenengo, eta zuzeneko diskoa aurrerago grabatzeko asmoa dute

Folk-rock progresiboa egiten zuen Izukaitz taldearen sortzaileetarikoa bat izan zen Fran Lasuen. Dozena bat urtez Oskorri taldean ere jardun zuen, eta antzerkirako musikak sortu izan ditu azken urteetan: Gorakada taldearen *Munduari itzulia* obraren musika egin du, esaterako.

Bost urtez El Consorcio taldearekin pianista jardundakoa da, bestalde, Canal, eta Kepa Junkeraren *Etxea* lanean ere parte hartu zuen.



Biolina jo eta kantatu egiten du Fran Lasuenek ikuskizunean.



Pianoan jarduten du Jose Luis Canalek.

GEURE DURANGALDEA

FERNAN RUIZ

Berbaroko kidea

Itsasoak

Gela txiki batean batu gara zortzi gaixook. Psikologo gaitzaitzaileak gaia eman digu: militantzia. Hor ari gara zer ote den azaldu guran. Konpromiso, inplikazio, konplizitate, aktibista berbak zerrendatu eta esplikatzeko saiatu. Surfean ikasten dabilenaren antzera ari gara, orain taula gainean zutunik, orain urpean taula galduta eta olatua nondik datorren igarri ezinean. Hamarkada batzuk atzera jo dugu, orduko ereduak erreparatu eta ikaspenik edo har daitekeen. Egon badagoela ebatzi dugu, baina hori dela, ikaspena. Badirudi ikasle alferrak izan garela, maneiatzen utzitakoak, inguruko kutsaduraren biktima... Gaixoetako batek gogoetarako zaletasun gehiegi dugula bota du, ez dugu elkar entzuten eta entzundakoa paperean idatzita uzten dugu. Gaixoaren jatorria jo behar dugula dio beste batek eta, horretarako, *life coacha* kontratatu behar genukeela kontzientzia iratzarri eta indarraz jabeazteko. Tira!

Aipaturiko eztabaidak buruan, albiste interesgarria irakurri dut *Berrian*. Bitxia iruditu zait izenburua: "Itsasoa, militantziaren hoztea". Eider Rodriguezek doktoretza tesia amaitu berri du. Joseba Sarrionandiaren obra literarioan itsasoak izan duen presentzia eta bilakaera aztertu ditu. Eiderrek dio Sarrik itsasoa erabiltzen duela metafora gisa bere militantziaren sinbolotzat, eta hiru itsaso irudikatu ditu bere ibilbidean; baina borroka berriak asmatu beharra iradokitzen du.

Gela txikiko zortzi gaixoon gaia erekin antzekotasunik? Itsaso berririk ez dakit topatuko dugun, baina, bila gabiltzala, seguru nago dugunaren soinuaz eta kresal usainaz gozatuko dugula. Uda ona pasa irakurle, militante, Itsaso...

> ZINEMA

Dokumenalak Elorri eta Atxondon

Uztailaren eta abuztuaren eskainiko dituzte filmak Elorri eta Atxondoko gaztetxeetan. Bosna dokumental eskainiko dituzte. Uztailaren 18an, 22:00etan, *La estrategia del caracol* eskainiko dute, Atxondon. Sergio Cabrera kolonbiarrak zuzenduriko lana da: eraso inmobiliarioari, elkartasunari eta askatasunari buruzkoa. Uztailaren 23an, Elorri, *DIAZ, no limpiéis esta sangre* emango dute: 2001ean Genevan G8aren kontra mobilizatu zirenen kontrako errepressioa bortitzaren kontakizuna.

> ARGAZKIGINTZA

Deser Studioren erretratu bat saritu dute Andaluzian



Andaluziako argazkilarien eta bideogileen AFIAN elkarteak antolatzen duen lehiaketan jaso du Durangoko Deser Studiok saria. Lehiaketa horretako erretratuen sailean saritu dute Argi Aramberri argazkilariak sinaturiko alboko argazkia.

Estudioa Durangoko Kuruztiaga kalean daukaten Argi Aramberri eta Sergio Zubizarreta argazkilariak aurkezturiko argazki bi izendatu zituen Andaluziako argazkilarien elkarteak erretraturik onenaren saria jasotzeko. Sariren bat jasotzeko izendapena jaso duten 40 argazkietatik 11 euskaldunak izan dira.

Uztailaren 4an, Granadan burutu zuten argazki lehiaketaren sari banaketa ekitaldia.

hitz
liburudenda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko eta asteburuak menuak - Delikatessena - Ardoteka
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

GAUZAK
Fran Lasuen & Jose Luis Canal
Uztailak 18 • 20:00
Kurutzasantu Museoa

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

JAIAK!

2013ko UZTAILA | OTXANDIO

UZTAILAK 17, 18, 19, 20 & 21

OTXANDIOKO

JAIAK 2013



OTXANDIOKO
UDALA

OTXANDIOKO JAIEN EGITARAUA

Uztailaren 13a, zapatua Gazte Eguna

13:30 Trikipoteoa tabernarik taberna.

15:00 Gazte bazkaria, herriko plazan.

18:00 Gazte olinpiadak.

23:00 Kontzertuak gaztetxean.

23:00-02:00 Mariachi Real Azteca (Mexiko) kalejira eta musika tabernetan.

Uztailaren 14a, domeka III. Herri Kanta Eguna

12:30 III. Herri Kanta Eguna. Soinubilen eskutik.

14:30 Kantu-bazkari herrikoia, Mainondoko gimnasio berrian.

18:00 Soinubil kultur elkartearekin kantak eta dantzak, herriko plazan.

Uztailaren 17a, eguaztena

19:00 Kalejira herriko txistulariekin.

19:30 Ohiko Salve Regina abestuko dute, Santa Marina elizan.

20:00 Otxandioko presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea plazan.

21:00 Txupinazoa, auzolanean ibili den herritar taldearen eta suhiltzaile boluntarioen eskutik.

21:05 Danborrada Musika Bandaren eskutik.

22:30 Berbena Ai Ene! taldearen eskutik.

Uztailaren 18a, eguena Santamaña Eguna

11:00 Otxandioko musika bandaren eta herriko txistularien kalejira.

12:00 Meza nagusia Santa Marinaren omenez, Oihandi abesbatzazagaz.

13:15 Urduri dantza taldeak herriko plazan.

17:15 Pilota partiduak Mañondon.

Afizionatuak: Beñat Mendia-Ibon Urrejola eta Beñat Iturbe-Jokin Etxebarria. Nesken gomazko paleta partidua: Arrizabalaga-Etxaniz (Bizkaia) eta Pradera-Isasmendi (Bizkaia-Araba). Lehen mailako amateurak: Uriona-Zabala (Bizkaia) eta Andreu-Tolosa (Gipuzkoa).

19:15 Pikor konpainiak gazte eta helduentzako *Atsoak dantzan* obra eskainiko du, plazan.

20:15 Luhartz taldeak musikaz girotuko ditu arratsaldeko azken orduak.

23:00 Herriko koadrilen play back txapelketa eta jarraian berbena, Luhartz taldearen eskutik.

Uztailaren 19a, barikua Umeen Eguna

10:30 Orienteeringa: mapa eta iparrorratza eskuetan, etxeko txikienek herriko bazterrak zeharkatuko dituzte.

11:45 Eskolako 6. mailako ikasleek umeen eguneko txupina botako dute udaleko balkoitik.

12:00 Urteroko Iluntxo pilota eskolaren partiduak, Plaza Nagusian.

12:30 Arimen meza.

12:30 Zirku tailerra, herriko plazan.

17:00 Jolas txokoa adin guztietako umeentzako, plazan.

17:00 Urteroko tute, mus eta briska txapelketa.

18:00 Zirika Zirkus konpainia: *Txarlestrop*.

19:00 Buruhandi, erraldoi eta txistularien kalejira.

19:30 Otxandioko Oihandi abesbatzak, Zaldibarko koral elkarteak eta Aiarako abesbatzak ekitaldia eskainiko dute, elizan.

20:00 Eskolako 6. mailako ikasleek eguneko azken txupina botako dute.

20:05 Pilota txapelketa finala, plazan.

Eguraldi txarra izanez gero, umeen eguneko ekitaldiak Mañondon izango dira.

Uztailaren 20a, zapatua San Martin

09:00 Peska txapelketa, mataderoan.

12:30 Meza, San Martinen.

14:00 San Martinen paella txapelketa, bolo txapelketa eta fanfarrea.

19:30 Herri kirolak oinarri dituzten umeentzako jolasak, Andikonan.

19:30 Bentazaharreko mutiko alaien txaranga.

23:30 Kontzertuak: Riot Propaganda (Habeas Corpus + Los Chikos del Maíz). Ondoren, Izargi.

Uztailaren 21a, domeka

07:30 Diana eta kalejira.

08:00 Sokamuturra.

12:00 Meza Nagusia.

13:00 Omenaldia 1936 urteko bonbardaketan hildakoei, Andikona plazan.

13:45 Ohiko limonada, plaza nagusian.

19:00 Urduri dantza taldea eta Kriskitin, plazan.

20:00 Drindots musika taldearen emanaldia.

22:30 Drindotsekin erromeria.

00:30 Agur Santa Marina abestuz, jaiari amaiera emango zaie.

danoena
taberna

jai zoriontsuak denoi

plaza nagusia 5. OTXANDIO Tel: 945 45 02 48

Haitz taberna

coffee

Artekale 32 Tel.: 945 46 14 26 OTXANDIO

KOSKA

TABERNA

Tel: 945 46 14 80
Plaza Nagusia, 6
OTXANDIO



Otxandioko kaleak beteko dituzte kantuzaleek, domekan

Soinubil kultur elkarteak antolatu du domeka honetako Herri Kanta Eguna

> ITSASO ESTEBAN

Jaien hasierako txupinazoa uztailearen 17an botako badute ere, lehenago abiatuko dute jai egitarau oparua Otxandion. Gaur, Gazte Eguna ospatuko dute, eta domekarako, Herri Kanta Eguna antolatu dute hirugarren urtez. Soinubil kultur elkarteak bultzaturikoa da ekimena, eta Txomin Bengoa elkartearen kidearen berbetan, "berez kantuzalea den herrian, kantuzalea da kalera ateratzea" dute helburu.

Herriko umeek eta kantatzen laguntzera hurreratzen direnek abiatuko dute 12:00etan, herriko plazan, kantuzaleen eguna: *Kantuzaleak* abestu, eta 14:30era arte kantuan ariko dira Otxandion zehar, kalejiran. Kanturako zaletasun handiko herria da Otxandio, eta umeak ere "kantuzalea" da Soinubil elkartearen helburuetako bat.

Goizeko kantaldiaren ostean, lagunarteko bazkarian batuko dira kantuzaleak, eta ondoren, iluntzera arte jardungo dute kantuan eta dantzan. *Andikona* 36 lako bertako kantak, Arratia-

T. Bengoa: "Berez kantuzalea den herrian, kantuzalea da kalera ateratzea da ekimen honen helburua"

Ekimena burutu duten aurreko bi urteetan 300 eta 400 lagun bitarte batu dira Otxandioko Herri Kanta Egunean

ko *Zeanuritik baraurik* moduko inguruko herrietakoak, edota *Ituringo arotza*, *Baratze bat* edo *Loretzoxa* kanta ezagunak eskainiko dituzte, esaterako.

Orain hamabost urte inguru ofizialdu zuten Soinubil elkarteak, baina ordura arte ere Otxandion lan handia egin zuten kantagintzari lotuta: Emilio Donadok, esaterako, herriko kanta zaharrak berreskuratu eta liburuxka batean argitaratu zituen. Azken urteetan, Donadok bildutako kanta horiek diskotant ere argitaratu dituzte, Soinubil elkartearen ekimenez: Gabon kanten disko bat eta ume kanten beste bat kaleratu dituzte.

Ekimena burutu duten aurreko bi urteetan 300 eta 400 lagun bitarte batu dira Otxandioko Herri Kanta Egun honetan. Bazkaritara ere ehun lagun baino gehiago batu izan dira.

Kriskitin eta Urduri taldeen elkarlanetik sorturiko ikuskizuna

Uztailearen 21ean eskainiko dute herriko Urduri taldeak eta Durangoko Kriskitinek emanaldia

> I.E.

Urduri dantza taldeak makinatxo bat lan egiten du urte osoan: lau urtetik gorako umeei erakusten, dantza taldeak mantentzen eta plazako emanaldiak antolatzen, besteak beste. Baina horrez gainerako ekimena da uztailearen 21ean Otxandio-ko jaietan erakutsiko dutena: ikuskizun bat prestatu dute

Kriskitin taldeko dantzariak eta musikariak eta Urduri taldeko 28 dantzariak jardungo dute emanaldian

Durangoko Kriskitin dantza taldearekin elkarlanean.

Otxandioko dantza taldeko gazteei plazako ohiko emanaldietatik aparte ekimenetan parte hartzeko aukera eskaintzeko asmoz antolatu dute.

Kriskitin taldeko dantzariak eta musikariak, eta Urduri taldeko 16 eta 40 urte bitarteko 28 dantzariak jardungo dute emanaldian. Iurretako Gorulariena dantzatu dute, besteak beste, eta erromeria giroan amaituko dute saioa.

Bestalde, jaietako ohiturazko dantza emanaldia ere eskainiko dute, uztailearen 18an, 13:15ean, Urduri taldeko 80 ume dantzari herriko plazan.

Habeas Corpus eta Los Chikos del Maíz taldeen batura: Riot Propaganda

Uztailearen 20an, 23:30ean hasita ariko dira Riot Propaganda taldekoak, Otxandioko jaietan



Rap eran emandako politika eta gizarte gaiei buruzko letra zorrotzak eta rock doinuak eskaintzen dituzten talde biren batura da Riot Propaganda: Madrilgo Habeas Corpusek musika eta Valentziako Los Chikos del Maíz letrak ipinita sorturikoa. Zortzi kanta-

ko diskoa kaleratu zuten, eta abesti horiek han-hemen zuzenean emanaldietan eskaintzen dihardute azken hileetan.

Uztailearen 20an joko du Riot Propagandak; 23:30ean. Ostean, Izargi taldearen erromeriak jarraituko du, zapatu gaueko giroa berotzen.




**ETXEBARRI
NEKAZALTURISMOA**

- Antzinako jauregia. 6 logela bikoitz bainugelarekin, ile-lehorgailu eta telebistarekin.
- Gela bat ezinduentzako egokitua.
- Egongela, telebista eta mahai-jokoekin, WiFi.
- Sukaldea eta garbigailua erabiltzeko eskubidea.
- Aparkamentua eta lorategia, barbakoak, mahai eta jesariekuekin.

Otxandio (Olaetara bidean)
• 945 450 123 • 676 94 75 23

BAR JATETXE
Gure - Etxea

Urigoiena, 17
Teléf. (945) 45 02 00
OTXANDIO



Jon Soloeta
Huri-Barrena jatetxea



Huribarrena kalea, 8
48210 Otxandio
(Bizkaia)
Tel.: 945 45 01 25

Herriko gazte guztiak batzeko asmoagaz, laugarren edizioa beteko du Gazte Egunak

Bihar ospatuko dute Otxandion aurtengo Gazte Eguna; eguerdiko 13:30ean hasiko da egitaraua, trikipoteoagaz



> MARKEL ONAINDIA

Bihar ospatuko dute Otxandion aurtengo Gazte Eguna. Berez jaiak ofizialki hasi barik egongo diren arren, jaien barruan kokatu dute ekimena, urtero jaien bueltan egin ohi da-eta. Aurten laugarren edizioa beteko du Gazte Asanbladak antolatzen duen jaialdi horrek, eta helburua aurreko urteetako berbera izango da, asanbladako kideek adierazi dutenez: "Herriko gazte guztiak elkartu eta denon eguna izatea". Era honetan, bihar bertan hasiko da festa giroa Otxandioko kaleetan. Uztailaren 21era arte jarraituko du jaiak.

Batu, antolatzeko ere bai

Ekitaldiak askotarikoak izango dira, ahalik eta jende gehien batzeko intentzio horri lotuta. Baina, antolaketan ere norabide bera aplikatu dute. Asanbladako

kideek eraturako ekintzak izan arren, guztietan herriko gazteen partaidetza sustatu dute, Gazte Asanbladakoek esan dutenez. Esate baterako, bazkarirako parillada gazte batzuek antolatuta dute, olinpiadak beste talde batek eta kontzertuekin ere gauza bera gertatu da. Ahalik eta gazte gehien jaien antolaketan inplikatzeari izan da asanbladakoena nahia.

Olinpiadak, arrakastatsu

Eguerdiko 13:30ean hasiko dute eguneko egitaraua, tabernarik taberna egingo duten trikipoteoagaz. 15:00etan gazteen bazkarian elkartuko dira. Horren ostean, 18:00etan, olinpiadetan parte hartuko dute. Arratsaldetik gauera joanda, kontzertuak egongo dira gaztetxean: Eskean Kristo, Krome eta Itzartu taldeak. Azkeneko talde honek

erromeria eskainiko du, lehenengo bien rock musikaren ostean.

Gazte Eguneako ekitaldi arrakastatsuen olinpiadarena dela adierazi dute asanbladakoek. Bai behintzat, partaide kopuruari dagokionez. Izan ere, gazteek gainera, beste adinetako jendeak ere parte hartu ohi duela azaldu dute. Jokoen inguruan hainbat talde sortzen dituzte, eta ikusleen artean ere giroa sortzen dute. Oraindino badago olinpiadetan parte hartzeko aukera; bihar bertan eman ahal izango dute izena interesdunek. Horretaz gainera, bazkaria ere bada eguneko ekintza garrantzitsu bat. Iaz 60 bat gazte batu ziren, eta aurten ere beste horrenbeste batzea espero dute gutxienez.

Tabernetan, mariatxiak

Gazte Eguneako egitarauan ba-

dago ekintza bat gazteek eurek antolatu ez dutena. Herriko tabernariak programa osatu dute proposamen berezi batez: mariatxiak. Gaueko 23:00etatik 02:00etara, Mariachi Real Azteca talde mexikarraren musika egongo da tabernetan. Gainera, tabernaz kanpo kalejira ere egingo dute.

Auzolanari omenaldia

Gazte Asanbladakoek gazteen partaidetza sustatu duten moduan, herrian auzolanean ere jardun dute hainbatek. Jaietan kaleak garbitzen, neguan elurra kentzen, mendi martxetan bidegurutzeak zaintzen... Bada, aurtengo jaietan behar horretan ibili diren guztiak omendu gura dituzte. Horregatik, euretako batzuek botako dute txupinazoa. Biharkoaren ostean, hori izango da jaien bigarren hasiera.

Ahalik eta gazte gehien jaien antolaketan inplikatzeari izan da asanbladakoena nahia

Taberna LORA

Artekale 16
Tel.: 677 568 580
Otxandio

Rosa Mari
Estankoa egunkariak
aldizkariak

Plaza Nagusia 9
• Otxandio
• Tel.: 945 45 00 33

KOROSTONDO
janari denda

Artekale 19 OTXANDIO
Tel.: 945 45 00 94

URREJOLA
okindegia


ale eta ongarrien biltegia

Artekale 31
Tel.: 945 45 00 93
Otxandio

JAIIAK!

Babeslea:
AMOREBIETA -ETXANOKO UDALA

2013ko UZTAILA | ZORNOTZA



ZORNOTZAKO JAIEN EGITARRAUA

Uztailaren 13a, zapatua

Egun guztian VII. Open "Karmenak" + II. Balcon de Bizkaia scalextric txapelketa, Txiki Otaegin.

Goizean Rallysprint Amorebieta-Etxano, auzoetatik.

17:00 Gurutze Gorriaren erakustaldia, Zelaieta parkean.

Uztailaren 14a, domeka

Goizean VII. Open "Karmenak" + II. Balcon de Bizkaia scalextric txapelketa, Txiki Otaegin.

10:30 Amorebieta-Etxanoko Udala Saria, Nafarroa kalean. EH Junior.

Uztailaren 15a, astelehena

20:00 Pregoia eta txupinazoa, Herriko plazan. Ondoren, kalejira: Amorebieta Etxano, Udazken, Buztintxuri eta Uztargi erraldoi eta buruhandien konpartsak, gaiteroak eta txistulariak.

20:30 Wombo Orchestra (2012ko epaimahaiaren sari berezia), Kalbario-Euskal Herria enparantzan.

22:00 Bongo Botrako, Zubiondo parkean.

Uztailaren 16a, martitena Karmen eguna

11:00 Udazken taldearen kalejira, herrian zehar.

Goizean Karmengo jaiak, Larrean: meza, bertsolariak, Udabarri dantza taldea eta Triki Piu taldeagaz euskal erromeria.

Ondoren herri kirolak, Larreako landetan. Urrezko aizkolari txapeldunen liga: Bizkaiko txapeldun Aitzol Atutxa "Atutxa II" vs Gipuzkoako txapeldun Joseba Otaegi. Inhar Urruzonok harrijasoketan eta ingudean jardungo du.

18:00 Abentura parkea: eskalada, tirolina, zubiak... Zelaieta parkean

18:00 Pilota partidu profesionalak Amorebieta IV frontoian: Urrutikoetxea-Iza Elezkano-Apraizen kontra. Eta, Olaizola II-Ibai Zabala Bengoetxea VI-Beroizen kontra.

20:00 *Orsai* kale antzerkia (Malas compañías zirko taldea), Herriko plazan.

21:30 Kalakan, Zubiondo plazan.

Uztailaren 17a, eguaztena

20:00 Koadrilen arteko play back lehiaketa, Zelaieta parkean.

22:00 Sete Sóis Sete Luas festibala, Zubiondo plazan: Melech Mechaya (Portugal).

Uztailaren 18a, eguna

11:00 La Bombonera. Futbola 3x3. Zelaieta parkean.

18:00 Umeen txirrinka irteera, Zubiondo parkean.

22:00 Sete Sóis Sete Luas festibala, Zubiondo plazan: Kamafei (Italia).

Uztailaren 19a, barikua

Egun osoan Koadrilen Eguna, txosnetan: koadrilen bazkari herrikoa eta beste hainbat ekintza.

16:00 Tenis Lehiaketako finalerdiak, Ganen.

17:00 50 xake partida Bizkaiko txapeldun Jon Axel Goiriaren kontra.

18:00 Kutxen jolasa, txosnetan.

19:00 Umeen danborrada.

21:00 XIII. Txistularien Kontzertua. Abeslari gonbidatua: Jaurne Gaminde.

22:30 Kontzertua, txosnetan: Hesian eta EH Sukarra.

23:00 Alkoholemia karpa, txosnetan.

Uztailaren 20a, zapatua

Goizean marmitako lehiaketa, Zubiondo parkean.

09:00 LXXXIX. Usakume Tiro ofiziala, Boroa industrialdean.

11:00 Tenis Lehiaketako finalak, Ganen.

17:00 XXXII. Xake Txapelketa. Agustin Zamakona Memoriala.

18:00 Karmenetako VI. Eskupilota Txapelketa, Amorebieta IV frontoian. Federatuen finalak.

22:30 Kontzertua, txosnetan: Green Dog eta Honat.

23:00 Kanp berbena: Varadero Orchestra, Zubiondo plazan.

03:00 *Erotic Urban Cross*, txosnetan.

Uztailaren 21a, domeka

Goizean umeentzako jolas parkea, Zelaieta parkean.

09:00 LXXXIX. Usakume Tiro ofiziala, Boroa industrialdean.

11:00 Bizkaiko V. Abelburu Piriniotarren Txapelketa, Jauregibarrian.

11:00 Itsas modelismo erakustaldia, Jauregibarrian. Bilbo Model Cluba.

11:00 Amorebieta-Etxanoko II. Milia eta Jaietako Lasterketa, Zubiondo parkean eta Jauregibarrian.

11:30 Pala partiduak. Herriko txapelketaren finalak, Amorebieta IV frontoian.

12:00 Arku tiroa, Jauregibarria parkean.

12:30 Areatzako Musika Banda, Herriko plazan.

21:00 Gozategi, Zelaieta parkean.

Uztailaren 22a, astelehena

17:00 Koadrilen arteko bolo txapelketa, Gure Kirolak bolatokian.

21:00 Bertsolariak: Arkaitz Estiballes, Julio Soto, Iker Zubeldia, Oihana Bartra, Herriko plazan. Gai jartzailea: Zornotzako bertso eskola.

Uztailaren 23a, martitena

Egun guztian umeentzako II. Rally Slot Amorebieta Txapelketa.

18:00 Puzzle lehiaketa eta ludoteka, Herriko plazan.

21:00 Nazioarteko dantzak: Group Jangar (Kalmykia-Rusia), Herriko plazan.

Uztailaren 24a, eguaztena

18:30 Koadrilen arteko piragua jaitziera, Ibaizabal errekan.

20:30 Zirku antzerkia: *No hay tiempo que perder* (El gran Rufus), Gernika plazan.

21:00 Bilbainadak. Los 5 Bilbainos, Zelaieta parkean.

22:30 Kaleko zinea, Herriko plazan.

22:30 Kontzertua: Zain eta Narco.

Uztailaren 25a, eguna Santiago eguna

Goizean baserritarren azoka, Zelaieta parkean.

Egun guztian aitiba-amamen jaiak: meza, aurreksua, erromeria...

09:00 Umeentzako arrantza lehiaketa, Ibaizabal errekan.

17:00 Karmenetako VI. Eskupilota Txapelketa, Amorebieta IV frontoian.

18:30 Koadrilen arteko herri kirolak, Zelaieta parkean.

19:00 S.D.A. Taldearen Aurkezpen partida. III. Amorebieta-Etxanoko Udala Saria, Urritxe futbol zelaietan.

20:00 Ongintzako kontzertua: Sayã Sangidorj. Pianoa (Mongolia), Zornotza Aretxean.

20:30 Zu Zeu Artista!!! IV. Herriko Gazteen Proposamen Eszenikoen Lehiaketa (+11), Zubiondo plazan.

21:30 Blanco y en botella, Zubiondo plazan.

22:30 Su artifizialak: Zaragozana piroteknika, Jauregibarrian.

22:45 Memoria de Pez, Zubiondo plazan.

Uztailaren 26a, barikua Santana eguna

Egun guztian umeentzako jolas parkea, Zelaieta parkean.

20:00 Umeentzako antzerkia: *Zoozoom* (Markeliñe).

22:30 Danborrada.

23:00 Kontzertua txosnetan: Steepers, Primeros Auxilios eta Raxfer.

Uztailaren 27a, zapatua Santanatu eguna

19:30 XIV. Koadrilen Arteko Mozorro Lehiaketa eta *Fiebre del sábado noche* ikuskizuna. Colectivo Birloque.

20:30 Mozorro lehiaketaren sari banaketa, Herriko plazan.

21:00 Kaleko musika: Beat N'Blow (2011ko epaimahaiaren sari berezia), Kalbario-Euskal Herria.

22:00 Disko festa: Concept Club, DJ Eneko Baranda, DJ Chuchi, DJ Jordi K. Dantzariak.

22:00 Kontzertua txosnetan: Puzkerpunk eta Joxpa taldeagaz erromeria.

Badator hamahiru eguneko jai giroa, Jai Batzordeari eta kultura elkarteei eskerrak

C.D. Zornotzak irakurriko du aurtengo Karmenetako pregoia. Jaien aurkezpenean herriko elkarten lankidetzaz nabarmendu dute



Andoni Agirrebeitia kultura teknikariak eta David Latxaga Zornotzako alkateak Karmengo jaiak aurkeztu dituzte asteon.

> AMAIA UGALDE

Astelehen iluntzean C.D. Zornotzak botatako pregoiagaz hasiko dituzte aurtengo Karmenak Amorebieta-Etxanon. Besteak beste, Zornotzako Nazioarteko Krosaren antolatzailea da kluba, eta haren lana aitortzeko erabaki dute aurten.

Motorrak asteburu honetan hasiko dira hamahiru eguneko jaietarako berotzen. Zapatuan 14. Rallysprinta egingo dute, eta domekan, Open Karmenak Scalextricaren txanda izango da.

Andoni Agirrebeitia kultura teknikari eta Jai Batzordeko presidentek eta David Latxaga al-

kateak eman dute egitarauaren berri. Jaietan herriko elkarteek eta norbanakoek duten parte-hartzea nabarmendu dute Agirrebeitiak eta Latxagak.

Txosnetako kontzertuak

Aurten ere txosnagune bi egongo dira jaietan: Ogenbarrena auzoan bost txosna egongo dira, eta Zubiondon lau. Zubiondo-koak uztailaren 15ean zabalduko dituzte, eta Ogenbarrenakoak 19an. Zubiondon, besteak beste, Bongo Botrako –uztailaren 15ean–, Kalakan –uztailaren 16an– eta Memoria de Pez –uztailaren 25ean– taldeek eskainiko

Bongo Botrako, Kalakan, Memoria de Pez, Hesian, EHSukarra eta Gozategi egongo dira, besteak beste

dituzte kontzertuak. Ogenbarrenan Hesian eta EH Sukarra izango dira lehen gonbidatuak, hilaren 19an. Zain eta Narco taldeek uztailaren 24an eskainiko dituzte kontzertuak. Gozategi ere etorriko da Zelaietara, uztailaren 21ean.

Uztailaren 19ko Koadrilen Egunaz gainera, koadrilek play back txapelketa edukiko dute uztailaren 17an, eta piragua jai-tsiera uztailaren 24an. Gainera, aurten, lehenengoz, uztailaren 25eko goizaldean *Erotic Urban Cross* edo galtzontzilo eta kulero lasterketa egingo dute.

Koadrilentzako beste egun berezi bat marmitako lehiaketaren eguna izango da. Iaz 2.000 parte-hartzaile baino gehiago batu ziren, eta aurten ere antzeko parte-hartzea espero dute uztailaren 20an. Lehiaketan izena emateko azken unea uztailaren 15ean izango da, 14:00etan.

Horrez gainera, Sete Sóis Sete Luas nazioarteko jaialdiko kontzertu bi ere izango dira Zubiondon: Portugalgo eta Italiako musikaz gozatzeko aukera egongo da.

Umeentzako, abentura parkea antolatuta dute, aurten lehenengoz, Karmen Egunerako, Zelaietan. Nagusienek betiko doinu dantzagarriez gozatu ahal izango dute Varadero berbenagaz eta Los cinco bilbainos taldeekin.

Kirol jardueren artean berriz, Karmen Eguneko pilota partiduen barruan, Olaizola II txapelkunak jokatu du, besteak beste.

Mongoliako piano-jotzaile entzutetsua, bere herriaren alde

Sayá Sangidorj piano-jotzaileak kontzertua eskainiko du uztailaren 25ean

> M. O.

La Otra Mirada izeneko Durangoko Gobernuz Kanpoko Erakundeak Ulaan Baatorretik gertu daukan proiektuaren alde kontzertua eskainiko du 25ean Sayá Sangidorj piano-jotzaile mongoliarrak. Sangidorj oso ezaguna da Mon-

golian, eta bere ibilbideari Arte Ederretako masterra eman dio UNESCOk. Horrez gainera, "Kultura Enbaxadore" izendatu zuen Mongoliako gobernuak 2000. urtean. La Otra Mirada elkarteak Mongolian egiten duen lana ezagutu zuenean, Euskal Herrian

kontzertuak emateko eskaini zuen bere burua.

La Otra Mirada erakundeak egitasmo nagusi bitan dabil orain lanean: dutxa publiko batzuk erakitzen Nalaikha herrian, eta kristalezko hezurren gaixotasuna duten neba-arreba biri laguntzen.



JUAN JOSE ANDEREZ | Amorebieta-Etxano, 56 urte | Club Deportivo Zornotzako idazkaria

“Klubaren historiari egindako aitortzen lez hartzen dugu ohorea”

Club Deportivo Zornotzari eman diote aurten pregoia irakurri eta txupina botatzeko aukera. Juan Jose Andererek 27 urte daramatza klubean

> JOSEBA DERTEANO

Noiz jakin zenuten jaietako pregoia irakurri eta txupina botako zenuela?

Herriko kirol elkarte gehienek txupina botata zuten, esan dezagun, elkarte antzinakoenetak gu geratzen ginela. Guk oso pozik hartu dugun ohorea da. Orain klubean gaudenetatik harago, klubaren historia osoari egindako aitortzen lez hartzen dugu.

Nortzuk igoko dira udaletzeko balkoira?

Asko ere ez gara sartzen. Nik pregoia irakurriko dut. Miguel (Bilbao) ere igoko da; derrigor igo behar da klubeko sortzaileetako delako. Hori bai, batzen garen denak zornotzarrak izango gara; atleta handi asko igaro da klubetik (Martin Fiz, Maitte Zuñiga...), baina etxekoekin egingo dugu, sasoi batekoak eta gaur egungoak batuta.

Pregoiari zer esango duzu?

Ez da luzea izango. Euskarazkoa eta gaztelaniazkoa batuta, minutu bat eskas iraungo du. Atletismoa apur bat jaietako lotzen saiatuko naiz. Azken batean, jendeak ez du azalpen luze eta aspergarriarik entzun gura.

Zenbat atletek osatzen dute kluba?

Gaur egun, 30 bat atleta dabilta,

denak Amorebieta-Etxano edo ingurukoak: Gernika, Lemoa, Igorre eta Dimakoak. Gehienak junior mailatik beherakoak dira.

Zelan definituko zenuke klubaren gaur egungo egoera?

Batez ere, harrobiagaz lan egiten dugu. Ez dugu giza baliabide handirik. Izan ditugu sasoi ho-beak.

Sasoi batean Martin Fiz lako atletak izan zenituzten, eta emakumeen taldea erreferentea izan zen.

Bai, gure talderik indartsuena emakumeena zen, eta denak bizkaitarrak ziren. Sei-zazpi urtean Espainiako Ohorezko Mailan egon ginen. 1995ean emakumeen taldea desagertu egin zen finantziario faltagatik. Ia ez zegoen dirulaguntzarik, eta oso gaitza zen taldeari eustea. Esan daiteke, gaur egun Bidezabalek hartu duela testigua, zelanbait

esanda, orduan guk egin genuenari jarraipena eman diola. Atleta gazte onak irten dira gure klubean harrezkero ere, baina apurka beherantz egin du. Hala ere, nire ustez atletismoak toki guztietan egin du behera.

Klubaren esijentzia maila ere aldatu egin da urte hauetan?

Gure filosofia hau da; ez dugu kirol emaitzarik exijitzen. Kirolari bakoitzari bere aukeren barruan lehiatzen erakusten diogu, baita garaipenak zein porrotak ondo onartzen ere. Exijitzen duguna konpromisoa da, kirolari bakoitzak bere onena eman dezala, bai entrenamenduetan, bai lehian. Bada esaldi bat behin Euskadiko Atletismo Federazioko presidenten ohi Andres Sanchezek esan zuena, eta buruan grabatuta geratu zaidana. Honela zioen: “Atletismoa gure denbora librean egiten dugun kirola izateak ez du esan gura serioa ez denik”.

Klubak nazioarteko kros eza-guna antolatzen du urtero. Esparru horretan puntarengoa jarraitzen duzue.

Datorren urtean 60. aldia egingo dugu. 20 bat urte zituenean Miguel Bilbaok sortu zuen, eta aldi guztietan egon da. Txapelketa askorik ez zegoen sasoiari, apurka izena hartzen joan zen. Nazioarteko izendapena lortu zuen 70eko amaieran. Babesleak eta erakundeetako laguntzak gehi-



“

Pregoiari ez da luzea izango; atletismoa jaietako lotzen saiatuko naiz; jendeak ez du gura azalpen luzeirik”

“

Azken urteetan behera egin du klubak; atletismoak, oro har, toki guztietan behera egin duela uste dut”

“

Datorren urteko krosa gaitz dago, oso gaitz, baina ez dugu bertan behera uzteko inolako intentziorik”

tu eta 80ko hamarkada amaierarako oso lasterketa ezaguna zen nazioartean. 1993an munduko txapelketa hartu zuen. Harrezkero, bere gorabeherekin, erreferente izan da.

Datorren urteko krosa lotuta duzue?

Kontua gaitz dago, oso gaitz. Baina nik uste dut aurrera aterako dugula. Diru gutxiago badago, diru gutxiagok antolatuko beharko da. Gauza bat argi dugu: ez dugu bertan behera uzteko inolako intentziorik.

Jaietan ekitaldirik antolatzen duzue?

Ez. Orain 25 bat urte koadrilen arteko pentathloia antolatzen genuen. Ez zuen klubak antolatzen, nire koadrilak baizik, baina koadrilako gehienok klubean genbiltzan. 100 eta 800 metroek, pisu jaurtiketak, errelebo probak eta altuera edo luzera jauziak osatzen zuten txapelketa. Denborak hartu eta jauzietan metroak neurtzen genituen. Lau edo bost urtean antolatuko genuen. Urte batzuetan, 30 bat koadrilek parte hartu zuten.



Emakumeen taldeak prestigio handia lortu zuen finantziario faltagatik desagertu zen arte.

Garage SAN MIGUEL



UDA KO PROMOTIOA

NIBELAK, ARGIAK,
ERROBEREN PRESIOA ETA
ZURE AUTOAREN
SEGURTASUN PUNTU GUZTIAK
BEGIRATZEN DITUGU

DOAN

Gainera, edozein konponketa
egitea beharrezkoa
balitz, aurrekontua
egingo dizugu, inolako
konpromisorik gabe

OLIOA ETA IRAGAZKIAK
ALDATZERA KOAN
AIRE EGOKITUAREN
GASA BETETZEN DIZUGU
20 euroan, ETA AIRE
EGOKITUAREN ZIRKUITU OSOA
BEGIRATZEN DIZUGU

DOAN

Konponketaren bat egitea
beharrezkoa balitz
aurrekontua prestatuko dizugu,
konpromisorik gabe

**Ekainaren 10etik
abuztuaren 2ra
arte balioa
duen promozioa**



Auzolanean konponketak egin ostean, bizikletagaz ibilbideak pasatzen.

Mendiko ibilbideak auzolanean konpontzeko aldarria

Azken asteetan, Oiz gainean dagoen BTTko ibilbide bat konpontzen ibili dira hainbat lagun; eurek badabiltza beharrean, baina ideia bera herritarrengana zabaltzeko nahia daukate

> MARKEL ONAINDIA

Oiz menditik igarotzen den BTTko ibilbide bat konpontzen dabiltza auzolanean herritar batzuk. Azken asteetan, mendi gainean dagoen zati bat garbitu eta konpondu dute, eta oraindik ere lan apur bat egin barik dutela esan dute. Eurek badabiltza beharrean, baina herritarrengana ideia bera zabaltzeko nahia daukate; mendiaren erabiltzaileek ingurunearen garbitasunaz eta egokitasunaz kontzientzia hartzea gura dute.

Arazo handiena, bizikletariak

Mendiko ibilbideetan sarri topatu ahal dira enborrak, adaxkak, harriak... Bizikletari hauek kritikatu dute inork ez dituela bideok zaintzen; beste batzuen lana den arren, euren kabuz ekitea erabaki dute. Aldundiko Basozaintza Sailaren menpe dago horietako askoren kudeaketa, udalen esku beste batzuen. Bidean trabak topatzean, oinezkoek errazago edukitzen dute pasatzeko; arazo handie-

na bizikletariak edukitzen dute: bizikletatik jaitsi eta gainean daroatela egin behar izaten dute aurrera. Ganadua-arentzako atramadekin ere antzekoa gertatzen zaie, eta bide publikoan, "denon bidean", horrelako hesiak ez zirela egon beharko uste dute.

Filosofia zabaltzeko beharra

Bizikletari batek Oizen egindako lana erakutsi du. Harri batzuk findu dituzte borrekin, harri handiren bat apartatu bidetik, zuloak estali dituzte, tarte berriak zabaldu... Filosofia hori erabiltzaile guztiengana zabaltzeko beharra ikusi du, bakoitzak ahal duen neurrian. "Koadrilan zoaztela enbor bat gurutzatuta ikusten baduzue, bizikletatik jaitsi eta apartatu", ipini du adibide legez. Oinez doazenentzako ere eskaera bera egin du. Helburua, bizikletatik jaitsi barik ahalik eta tarte gehien egitea da.

Mendi bizikleta goraka doan kirola edo afizioa da, eta Durangaldean hain-

bat bide daude horretarako. Auzolanean parte hartu duen bizikletariak mendiko kirolaren balioaz berba egin du. "Ona da osasunerako, psikologikoki estresak gaintzen laguntzen du...". Natura eta ingurunea ezagutzeko aukera ematen duela gogorarazi du, eta eraiki gura den gizarte eremuan eragina duela uste du.

Durangaldea, turismo gune

Baina, bere ustez ez da praktika hori behar beste sustatzen. Gainera, Durangaldea horrelako turismoa garatzeko leku ezin hobea dela dio: "Europako lekuri ederrenetakoa da". Txirrindulariak adierazi du Abadiño leku esanguratsua dela, ibilbideak egiteko dauzkan hamaika aukerengatik. Hori dela-eta, txangozaletasunagaz lotutako zentro edo topagune bat sortzeko leku ona dela aldarrikatu du. Tornosolo trinketean BTTko zentroa ipiniko dute, baina bere ustez, oinezkoentzako zentroa ere izan beharko litzateke.

Kritikatu dute inork ez dituela bideok zaintzen; beste batzuen lana den arren, euren kabuz ekitea erabaki dute

Filosofia hori erabiltzaile guztiengana zabaltzeko beharra ikusi du, bakoitzak ahal duen neurrian

Durangaldea horrelako turismoa garatzeko leku ezin hobea dela dio: "Europako lekuri ederrenetakoa da"

Kirola

Turismoen autokros txapelketak 52 parte-hartzaile batuko ditu Apatan

Zapatuan, 15:30etik aurrera, Markoidako landetan egokitutako zirkuituan lehiatuko dira turismoak



Iaz, lehenengoz, turismoen arteko lasterketa antolatu zuten Markoidako landetan.

JOSEBA DERTEANO

Motor hotsa, turismoak lokatzen derrapatzen, autoak zuzengunean parez pare bihurtunera nork arinago sartuko desafioka... Autokros zaleek hori eta gehiago gozatu ahal izango dute bihar, 15:30etik aurrera, hainbat herritarren ekimenez Atxondon antolatu duten autokros txapelketan.

Izaera herrikoia du eta 52 turismok parte hartuko dute. Iazko aldian, aldatu egin zuten lasterketa eredu (lur orotariko ibilgailuen abilezia probetatik turismoen lasterketatara pasatuta), eta aldaketagaz gustura

geratu zirenez, aurten formatu horri eutsi diote. Gainera, zelanbait esanda, Gizaburuagan bertan behera geratu zen autokros probaren oinordekotza hartu zuten. Antolatzeko orduan ere, buruhauste gutxiago eragiten ditu lasterketa batek.

Apatan, Markoidako landetan prestatuko dute zirkuitua: "Iazko antzekoa da. Ibilbideak bihurtune asko ditu, eta gune batzuk lokaztu egingo ditugu uragaz bustita", azaldu du Oier Olaetxea antolatzailere batek. Hala bada, abiaduraz gainera, trebezia ere beharrezko osagai izango du irabazi gura duenak.

Autokros proba federatu gabeko auto zaleei zuzenduta dago, eta turismo denek parte hartu dezakete, 4x4ko trakzioa dutenek izan ezik.

Lasterketa garatzeko sistema sailkapen fase bidezkoa izango da. Parte-hartzaileak seiko taldeetan banatuko dituzte, eta

"Ibilbidea iazko antzekoa da. Bihurtune asko ditu eta gune batzuk lokaztu egingo ditugu uragaz bustita"

horietatik aurreneko biak pasatuko dira hurrengo fasera. Horrela finalera arte. Hasierako sailkapen probak bost itzulira izango dira; finalerdiak zortzira, eta finala hamar itzulira. Arratsalde osoan, edariak erosteko taberna bat egokituko dute.

Sariak eta jai giroa

Sariei dagokien, gutxi gorabehera iazko ereduarekin jarraitzea da asmoa: iaz irabazleak txapela eta erreminta kaxa bat jasoko zituen; bigarrenak erreminta kaxa eta xanpaina, eta hirugarrenak 30 euro eta xanpaina.

ADITUAREN TXOKOA



Gotzon Gomez

Errugbia

Lions-en bira

Errugbi munduan zerbaitek ikusmina sortzen badu, lau urterik behin Lionsek egiten dituen birak dira.

British eta Irish Lionsen sorrerak XIX. mendearen amaieran du jatorria. Urte haietan, bi uharteak koroa britainiarren parte ziren, eta bi irlak ordezkaturiko zuen taldea sortzea erabaki zuten.

1888. urtean, Ingalaterra, Gales, Irlanda eta Eskoziako federazioek bultzatuta sortu zuten taldea. Hasieran, helburua dirua lortzea zen, eta horretarako hego hemisferiotik birak antolatzen zituzten. 1888an burututako biran 27 garaipenekin amaitu zuten taldeak. Sekulako arrakasta, kontuan harturik elkarrekin jokatzeko zuten lehen aldia zela.

1910. urtean onartu zuten Errugbi Batzordeak British eta Irish Lions talde bezala. 1947. urtean Lions osatzen zuten lau herrialdeek bat egin zuten, eta nazioarteko batzordea osatzeko elkartu ziren. 90. hamarkadara arte jokalariek ez zuten sosik ere kobratzen, baina 1993. urtean profesional bihurtu ziren.

Aurten, biran dabilta Australian. Ekainaren 22an jokatu zuten lehen partida Wallabiesen aurka. Amaieran 21-23 ipar hemisferioaren alde. Joan zen larunbatean, ANZ Stadiumean eta 84.000 zaleren aurrean, 41-16 irabazi zuten. Ikuskizun ederra bi talde mitikoaren artean. Animo Tata.

 **CENTRAL FORESTAL**

42 Urte Euskal Basoen Zerbitzura



Smurfit Kappa
Nervión

Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!

Jasangarritasuna bermatzen hurrengo ziurtagirien bitartez:



> PARAPENTEA

Kanpoan ez geratzeko borrokan dabil Iñigo Gabiria Alpeetan

Red Bull XAlps probako seigarren jardunaldia lehiatzen dabil elorriarra



Parapentean ezin duenean, korrika pilatu behar ditu kilometroak. 'xalps-basqueteam.com'

> JOSEBA DERTEANO

Red Bull XAlps parapente lasterketa biziraute proba bat da berez. Lo falta, 17 orduko jardunaldiak parapentean zein korrika, euria, halamoduzko elikadura... Baina gogortasunagatik ez ezik, lasterketan duen kokapenagatik ere (azken aurreko dago) proba biziraute kontu bat bihurtu da Iñigo Gabiriarentzat (Elorrio, 43 urte). Horrela izan da domekan lasterketari ekin zionetik. Egun birik behin azkenengo doan parapentelaria eta bere taldea probatik kanporatu egiten dituzte. Orain

arte libratu dira, baina datozen egunetan ere borroka handia aurreikusten dute atzetik dabil-tzanen artean.

Domekan Salzburgon (Austria) hasi zen proba, eta 15 bat egun eta 1.031 kilometroko ibilbidean Alpeak alderik alde zeharkatu ondoren, Monakon izango dute helmuga. Gabiriak eta bere taldekideek (Xabi Amorrortu elorriarra eta Iñigo Arizaga eibartarra) adierazi dute lasterketa hiru multzotan banatuta dagoela: irabazteko borrokan dabiltzanak, lasterketa ahalik

goren amaitzea helburu dutenak eta kanpoan ez geratzeko egunero eraginkortasun azterketa bat gainditzera behartuta daudenak. Gabiriak bigarren multzoan ibili gura zuen, baina hainbat faktorek (esaterako, ezin izan dute parapentea nahi beste bider erabili) azken postuetara eroan dute. Maurer liderrari 430 kilometro falta zaizkio amaitzeko; Gabiriari 800 inguru.

Arerioak diren arren, azken sailkatuen artean dagoen aditazuna azpimarratu dute; elkarri-laguntzeko prest daude.

> TXIRRINDULARITZA

Bastidara irteera antolatu du Berriz Bizikletari Elkarteak

Uztailaren 21ean egingo dute urteroko egunpasa; bizikletan zein autobusez egin daiteke ibilbidea

> J.D.

Bastidarako irteera Berriz Bizikletari Elkarteak urtero antolatzen duen egunpasa da. Uztailaren 21ean, Santiagon egunaren inguruan, Frantziako Tourraren azkeneko etaparen egun berean, egiten dute. Aurten uztailaren 21ean izango da. Berriz eta Bastida arteko ibilbidea bizikletaz edo autobusez egin ondoren (100 kilometro inguru), bertako upategi batean bazkalduko dute elkarteko kideek.

Berrizko Fonda tabernan egin daiteke izen-ematea. Uztailaren 21ean, 08:00etan, ipini dute irteera ordua Olakueta plazan. Autobusez doazenak 10:00etan irtengo dira. 12:00etan Bastidako igerilekuan bainu fresko bat hartzeko asmoa dute bazkaltzera batu aurretik. Buel-tako autobusa 18:00etan irtengo da. Autobusa, bideko hornidura eta igerilekuko sarrera Berriz Bizikletari Elkartearen kontura izango dira.

> IGERIKETA

Vidalek urrea, Euskal Herriko txapelketan

Joan zen asteburuan Tolosan jokaturako Euskal Herriko Igeriketa Txapelketan urrezko domina irabazi zuen Eñaut Vidalek (Durango, 15 urte) tximeletera-erako 50 metroan. Haurkategorian (1998an jaiotakoak) parte hartu eta 29.88ko denbora behar izan zuen 50 metroak egiteko. Vidal Galdakaoko igeriketa klubagaz lehiatzen da. Orain asteburu bi, Bizkaiko Txapelketan hirugarren denborarik onena eginda sailkatu zen Euskal Herriko finalerako.

> TRIATLOIA

Benedited eta Etxebarria geratu ziren Euskadiko txapeldun Garain

Javier Miguel Beneditedek eta Alberto Bravok elkarrekin jaso zituzten besoak helmugan

> J.D.

Joan zen zapatuko Garaiko triatloia Javier Miguel Beneditedek (Andoain, 35 urte) irabazi zuen; Alberto Bravo sailkatu zuen bigarren. Biak batera heldu eta elkarrekin jaso zituzten besoak, baina Benedited sartu zen aurreneko. Aitor Regillaga

izan zen hirugarrena. Emakumeetan Nerea Etxebarria azpeitiarrak irabazi zuen. Arantzazu Perez de Arenaza eta Veronica Dominguez izan ziren bigarren eta hirugarren. Uribarri Egia (Abadiñoko Laubideta triatloia taldea) laugarren helmugaratu zen.



Nerea Etxebarria irabazlea erdian, podiumean lagun izan zituenekin.

Gasteizko hitzordura sasoi betean helduko da Frades

Getxoko Extreme Man proba irabazi du

> J.D.

Gurutze Frades iurretarrak (MugarraTT) Getxoko Extreme Man proba irabazi zuen joan zen asteburuan. Iron man erdiko distantzia zuen proban erraz nagusitu zen; emakumeetan denborarik onena markatu zuen sektore denetan, eta helmugan 46 minutuko

aldea atera zion bigarrenari. Hurrengo hitzordua Gasteizko Challenge-a (iron man distantzia) du uztailaren 28an. Aurten distantzia luzeko munduko txapelketan zazpigarren sailkatu da iurretarra, eta hemendik aurrera Gasteizko hitzorduari begirako entrenamendua gauzatuko du.



Gurutze Frades Getxoko proba irabazi ostean.

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Mari kalea, 9 DURANGO - Tel.: 94 681 50 17

momotxo
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 94 681 10 06

Ofizinarako ziguilak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

94 620 22 41
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

ERROTARITXUENA

DURANGO

Imajinatzen duzu?

Etxebizitza hau zurea izan daiteke

Arriskurik gabe
eta baldintzarik onenetan



SabadellGuipuzcoano



Bisita ezazu gure
etxebizitza pilotua

Finantzaketa %100era arte
Baldintzarik onenetan
eta idatziz bermatuta

2 log. 204.000€-tik aurrera + BEZ
3 log. 268.000€-tik aurrera + BEZ

Etorri BIDEOA IKUSTERA gure webgunera



www.sukia.com
www.solvía.es

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23.

Paperean, ordainduta: Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak ETXEBIZITZAK SALDU

Bolibar (Bizkaia). Bolibarren etxea salgai, lur sailakin edo gabe. Telefonoa: 660-35 80 67

Abadino. Pisu salgai/alkairuan Muntzaratzen. Sukalde-egongela, 3 logela, bainugela eta komun, balkoi handia, igogailua eta berogailua. Garajea eta garbara. Tel.: 94-681 68 91.

Durango. Pisu salgai Durangoko erdigunean. Bi logela, Berriztuta. Denak kanpora ematen du. Oso argitsua edo eguzkitsua. 120.000 euro. Tel.: 695-70 24 61.

Elorrio. Etxebizitza salgai Elorrioko erdigunean, estrenatzeko. 3 logela, bi komun, sukalde ekipatua, 8m2-ko trasteroa eta igogailua. Prezioa: 198.000 euro. Tel.: 634-45 72 01.

